



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko abenduaren 10a

138. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (37. or.).
- 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa ezetsi du (40. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, bikote egonkorren erregistro bakarra sortzeari buruzkoa. Idatzizko galdera bihurtzea (41. or.).
- Galdera, aire zabaleko instalazioetan egiten diren Nafarroako kirol lehiaketetako ikusleen presentziari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (41. or.).
- Galdera, Zuastiko Zerbitzugunearen ondoko atean ordainleku bat jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Galdera, NICDO enpresa Reyno Arenan egiten ari den “autozinema” jarduerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak AP-15eko ibilgailuen zirkulazioa diruz laguntzearen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2020ko azaroaren 13ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga

Indarrrik gabe uztea Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren lehen artikuluko bost, zazpi eta zortzigarren apartatuak

Zioak: Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren lehen artikuluko bosgarren, zazpigarren eta zortzigarren apartatuek egungo baldintza gogorretan sartzea kaltegarria den egoera fiskala planteatzen dute. Zerga-figura horren mende dauden pertsonak ahalegin fiskal handiagoa egiten balute, zaildu egiten litzateke haiek garatutako jardueraren jarraipena, eta oso ahulduta aterako litzateke egungo egoeratik. Horrek enpleguak arriskuan jarriko lituzke, eta, ondorioz, horiei lotutako diru-bilketa murriztuko litzateke etorkizunean.

2. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginako 7. artikuluari y) letra berria gehitzea, honako testu honekin: 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“y) Honako foru agindu honetan jasotako laguntzak: 358/2020 Foru Agindua, urriaren 22koa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, dirulaguntzen deialdi bat onesten duena aparteko laguntzak emateko COVID-19aren ondorioz aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileei”.

Zioak: COVID-19aren ondorioz aldi baterako enplegu-erregulazioko aldi baterako espedienteek ukitutako langileak ziurgabetasun-egoeran daude, eta beren diru-sarrerak murriztu egin dira, eta horrek bereziki kaltebera egiten ditu jardueraren eta, beraz, enpleguaren etorkizuneko bilakaera negatiboaren aurrean. Kenkari horren bidez, indartu egiten dira urriaren 22ko 358/2020 Foru Aginduan aurreikusitako aparteko laguntzak, eta diseinatutako helburura gehiago hurbiltzen dira.

3. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru lege proiektuaren lehenengo artikuluen Lau apartatuaren c) letrari testua gehitzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“2 Ondokoak ez dira inolaz ere ondasunezko ordainsaritzat hartuko:

(...)

c) urrutiko lana edo telelana egiteko beharrezkoak diren bitartekoak, ekipoak eta erremintak entregatzea edo erabiltzeko lagatzea, zergadun

bakoitzeko urteko 2.000 euroko mugarekin, softwarea eta lotutako periferikoak barne.

Lotutako periferikotzat hartuko dira, besteak beste, monitoreak, teklatuak, saguak, bozgorailuak, inprimagailuak, webcamak, mikrofonoak, aurikularrak eta USB memoriak”.

Zioak: Ikusi da urrutiko lana edo telelana normalizatu egin dela, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz. Hori dela eta, beharrezkoa da lana garatzeko modu horrek dakartzan zerga-ondorioak arautzea. Urrutiko lana edo telelana egiteko beharrezkoak diren bitartekoak, ekipoak eta erremintak entregatzea edo erabiltzeko lagatzea gauzazko ordainsaritzat ez hartzearen arrazoia da ez litzatekeela diferentziarik egon beharko lantokian eskura jarritako bitartekoen eta urrutiko lana egiteko eskura jarritako postuen artean. Gainera, telelana sustatu nahi da, enpleguarentzat abantaila eztabaida ezinak baititu hainbat mailatan: osasun-mailan — lanera joateak eragindako istripu-arriskua desagertzen da, lanera joateak eragindako estresa murrizten da eta bat-bateko pandemia batez, COVID-19arekin gertatu den bezala, kutsatzeko arriskua murrizten da—, lan-mailan — errendimendua handitzen da eta, ondorioz, enpleguaren jardunaren ebaluazioa hobetzen da, lantokira joan behar ez izateak eta kontzentrazio-gaitasuna hobetzeak dakarren denbora aurrezteagatik— eta lana eta familia-bizitza bateragarri egitearen mailan —ordutegi-malgutasun handiagoa ahalbidetzen du—.

Antzeko neurriak daude Europako beste herrialde batzuetan, hala nola Erresuma Batuan, Belgikan eta Holandan.

4. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 25.2 artikulua aldatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“2 Etxebizitzarako diren ondasun higiezin errentamenduetan, aurreko apartatuan adierazita-koari jarraikiz kalkulaturako etekin garbi positiboa 100eko 40 murriztuko da. Ondorio horietarako, etxebizitzarako erabiltzen diren ondasun higiezin errentamendutik ateratzen diren kapital higiezin etekinen artean sartzen dira sozietate publiko instrumentalaren bitarteko errentamenduari lotzen zaizkion etxebizitzaren titularrek lortutako etekinak, arau hauen arabera: Nafarroan Etxebizi-

tza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikulua, eta Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 77. artikulua.

Subjektu pasiboak aitortutako etekinetan soilik aplikatuko da murrizketa”.

Zioak: Etxebizitzaren errentamenduetan lortutako etekinen murrizketa berreskuratzea da kontua, eta soilik errentamendu horiek aitortu dituzten zergadunentzat. Espainiako gainerako tokietan dagoenaren antzeko neurria da, eta:

- Etxebizitzak alokairuan jartzea sustatzen du, merkatuan etxebizitza gehiago jarritz.
- Alokairu-errenten moderazioa sustatzen du, eskaintza handitu eta tributazioa murrizten baitu; hala, errentariak prezio txikiagoak eskaini ditzake, zerga-kostu txikiagoa baitu.
- Errentariari emandako kenkariarekin osatzen du pizgarria.
- Diru-bilketa handitzea ere ekar dezake, alokairu-errentak azalertzeko balio duelako, aitortutako errentei bakarrik aplikatzen baitzaie.

5. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 31. artikulua bigarren paragrafoa eta ondorengoak aldatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Subjektu pasiboa hil dela-eta kosturik gabe eskualdatzen badira foru lege honen 29. artikuluan aipaturako besteren kapitalak hartu eta erabiltzea adierazten duten aktiboak, kapital higigarriaren etekinik ez dagoela iritziko da.

Aurreko paragrafoan xedaturakoa orobat aplikatuko da kostu gabeko eskualdaketa orainaldiko eraginkortasuna duen edozein oinordetza-tituluren bidez egiten denean. Horri dagokionez, oinordetza-titulutzat joko dira urtarrilaren 26ko 16/2004 Foru Dekretuak onetsitako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamenduen 4. artikuluan adierazitakoak.

Orainaldiko eraginkortasuna duten oinordetza-tituluen bidez kosturik gabe egiten diren eskualdaketa, aurreko paragrafoan aipaturako horietan, eskuratze-balioztat hartuko da, besteren kapitalak hartu eta erabiltzea adierazten duten aktiboen

eskurtailearentzat, etorkizuneko eskualdaketei begira, dohaintza-emaileak dohaintza-hartzaileari ematen dizkion unean aktibook duten balioa, salbu eta dohaintza-emailea hil baino lehen dohaintza-hartzaileak aktibo horiek eskualdatzen dituen; kasu horretan dohaintza-hartzailea dohaintza-emailearen lekuan subrogatuko da aktibo horien eskuratzeko-balioei eta -datei dagokienez, eta orainaldiko eraginkortasuna duen oinordetza-itunaren aurretik dohaintza-emaileak zituen balio eta datuei eutsiko die.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa berdin aplikatuko da aktiboak dohaintza-emailea hil aurretik itzultzen, amortizatzen, trukutzen edo bihurtzen direnean ere”.

Zioak: Helburua da fiskalitatea ez izatea oztopo ekonomiaren eta enpresaren ikuspegitik baliozkoak eta beharrezkoak diren eragiketak egiteko, eragiketa horiek geroagoko une baterako utzi behar izan gabe. Aldaketa horien bidez, herentziak egin ahal izanen lirake bizirik, heriotzaren unera arte itxaron beharrik izan gabe; horrela, fiskalitatea Nafarroako zuzenbide zibilean eta beste lurralde batzuetan, Gipuzkoan esate baterako, jada aurreikusita dagoenera egokituko litzateke.

Gaur egun, gerta daiteke eragiketa horiek ez egitea PFEZean eskualdatzailearentzat ekar dezaketen kostu fiskalagatik; beraz, kontua da “hildakoaren gainbalioaren” tratamendua Nafarroako Zuzenbide Zibilaren mendeko herentzien kasu guztietara zabaltzea, zuhurtasun jakin batzuekin, figura hori tresna bihur ez dadin inter vivos eskualdatzeak direla-eta agerian jartzen diren ondare-gehikuntzen ondoriozko tributazioa saihesteko.

6. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuaren lehen artikuluko Zortzi apartatua aldatzeko zuzenketa.

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Zortzigarren apartatuak 36. artikulua aldatzen du. Zuzenketak artikulua horren B) letra aldatzen du, e) letra bat gehituz 1. apartatuari eta 7. apartatu bat gehituz, testua proiektuan dagoen bezala mantenduta.

“c) Ezin izanen dute modalitate hau aplikatu Balio Erantsiaren gaineko Zergako nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik edo araubide sinplifikatutik kanpo geratzen diren edo uko egiten dioten subjektu pasiboek”.

“7 Errenta egozpeneko araubideko entitateak.

a) Zenbatespen zuzeneko araubideko modalitate berezia aplikatzeko izanen da 11. artikulua aipaturiko entitateek eginiko enpresa-jardueren etekin garbia zehazteko, baldin eta B) letra honetan ezarritako betekizunak betetzen badira eta haren bazkide, oinordeko, erkide edo partaide guztiak zerga honen subjektu pasibo diren pertsona fisikoak badira.

b) Modalitate honi uko egiteko, B) letra honetako 5. apartatuak ezarritakoari jarraitu beharko zaio, eta bazkide, oinordeko, erkide edo partaide guztiek eginen dute.

c) Modalitate hau aplikatuko da zein ere diren bazkide, oinordeko, erkide edo partaideengan biltzen diren inguruabarrak.

Hala ere, diru-sarreraren bolumena konputatzeko, kontuan hartu beharko dira, entitateak berak egozpen-araubidean eginiko enpresa-jarduerari dagozkien eragiketaz gain, baita haren bazkideek, oinordekoek, erkideek edo partaideek egindakoei dagozkienak; ezkontideak, ondorengo ahaideek eta aurreko ahaideek egindakoei dagozkienak; aipatu pertsona horietako edozeinek parte hartzen duen errenta-egozpeneko araubideko entitateek egindakoei dagozkienak; edo pertsona horiekin Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen 28. artikuluan adierazitako moduan lotutako entitateek egindakoei dagozkienak. Betiere, haietan inguruabar hauek biltzen badira:

1. Gauzatzen diren enpresa-jarduerak berdinak edo berdintsuak izatea. Ondorio horretarako, berdintzat edo berdintsutzat joko dira ekonomia jardueren gaineko zergari begira talde berean sailkatutakoak.

2. Jarduera horien zuzendaritza bateratua izatea, giza edo gauza baliabideak partekatuz”.

Zioak: Foru lege proiektuak bertan behera uzten du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zenbatespen objektiboko araubidea, eta 36. artikuluan zuzeneko zenbatespeneko modalitate berri bat ezartzen du, “berezia” deiturikoa, halako moduz non orain arte beren jarduera ekonomikoaren etekin garbia zenbatespen objektiboa aplikatuz zehazten zuten zergadunek modua izanen baitute 2021etik aurrera zuzeneko zenbatespen berezi berria aplikatuz zehazteko.

Araubide berriaren estaldura orain arte zenbatespen objektiboaren barruan zeuden zertzelada guztietara irits dadin, 36. artikuluan jaso dira betekizunak, etekina zehazteko modua, ukoa eta abar, eta eginkizun utzi da BEZaren araubideekiko koordinazioa, bai eta metodo berria errenta-egozpeneko araubideko entitateei aplikatzeko aukera ere. Horiek zergaren erregelamenduaren 35. eta 38. artikuluetan arautzen ziren zuzeneko zenbatespenerako.

Zuzenketa honen bidez aldatzen da foru lege proiektuan emandako testua duen 36.B) artikulua:

– Letra bat gehiturik, e), 1. apartatuari, ezartze aldera ezen Balio Erantsiaren gaineko Zergako araubide sinplifikatuari edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari uko egiteak berarekin ekarriko duela zuzeneko zenbatespeneko araubideko modalitate berezia PFEZean ez aplikatzea.

– 7. apartatu bat gehiturik, ezartze aldera ezen pertsona fisikoz besterik osaturik ez dauden errenta-esleipeneko araubideko entitateek zilegi izanen dutela zuzeneko zenbatespeneko araubideko modalitate berezia aplikatzea, baldin eta ezarritako betekizunak betetzen badituzte. Uko egiteari eta diru-sarreraren bolumenaren zenbatespenari buruzko zertzelada guztiak jasotzen dira.

7. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bategi-neko 39.4.b) artikulua aldatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“4.b) Zergaduna hil dela-eta kosturik gabe egiten diren eskualdaketatik, baita kostu gabeko eskualdaketa oraindik ere eraginkortasuna duen oinordetza-tituluren baten bidez egiten denean ere.

Horri dagokionez, oinordetza-titulua dira urtarilaren 26ko 16/2004 Foru Dekretuak onetsitako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamenduak 4. artikuluan adierazitakoak”.

Zioak: Helburua da fiskalitatea ez izatea oztopo ekonomiaren eta enpresaren ikuspegitik baliozkoak eta beharrezkoak diren eragiketak egiteko, eragiketa horiek geroagoko une baterako utzi behar izan gabe. Aldaketa horien bidez, herentziak egin ahal izanen lirateke bizirik, heriotzaren unera arte itxaron beharrik izan gabe; horrela, fis-

kalitatea Nafarroako zuzenbide zibilean eta beste lurralde batzuetan, Gipuzkoan esate baterako, jada aurreikusita dagoenera egokituko litzateke.

Gaur egun, gerta daiteke eragiketa horiek ez egitea PFEZean eskualdatzailearentzat ekar dezaketenen kostu fiskalagatik; beraz, kontua da “hildakoaren gainbalioaren” tratamendua Nafarroako Zuzenbide Zibilaren mendeko herentzien kasu guztietara zabaltzea, zuhurtasun jakin batzuekin, figura hori tresna bihur ez dadin inter vivos eskualdatzeak direla-eta agerian jartzen diren ondare-gehikuntzen ondoriozko tributazioa saihesteko.

8. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuaren lehen artikuluko Bederatzi apartatua aldatzeko zuzenketa.

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Bederatzigarren apartatuak 39.4 artikulua aldatzen du. Zuzenketak barne hartzen du artikuluko horretako e) letrako lehen paragrafoaren aldaketa, bai eta bederatzigarren apartatuaren goiburua ere. Gainerakoa, proiektuan dagoen bezalaxe mantentzen da.

“Bederatzi. 39.4 artikulua, c) letraren lehen paragrafoa, c) b') letra, e) letraren lehen paragrafoa eta e) b') letra. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak”.

“e) Enpresa bat edo Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko 5.8 Bi artikuluan arauturiko salbuespena aplikatzeko zaien entitateetako partaidetza guztiak edo partaidetza batzuk eskualdatzen zaizkienean enpresako langileei, honako betekizunak biltzen direnean:”

Zioak: Abenduaren 23ko 31/2019 Foru Legeak, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea partzialki aldatzekoak, bertan behera utzi zuen jarduera ekonomikoari loturiko ondasun eta eskubideentzat zegoen kenkaria, bai eta jarduera ekonomikok egiteaz gain zuzendaritza-zereginetan subjektu pasiboak diharduen entitate-

etako partaidetzak ere, eta haiek salbuetsirik dudelako deklaratu zen.

Aipatu kenkaria jasotzen zuen e) letrak; hortaz, bidezkoa da letra hori aldatzea, erreferentzia egin diezaion 5.8 artikuluan jasotako gaur egungo salbuespenari.

9. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren lehen artikuluko hamahirugarren apartatua indarririk gabe uztea.

Zioak: 29. zuzenketarekin lotuta dago.

10. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginako 55.1 7º a) b') eta b) a') b') artikulua aldatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“b”) 6.000 euro urtean. Berrogeita hamar urtez goitiko partaide edo mutualisten kasuan, zenbatekoa 8.000 eurokoa izanen da urtean.

b) Gainera, hauek aplikatuko dira muga bereki eta independente moduan:

a') Urteko 8.000 euro, enpresek mendekotasun-aseguru kolektiboari ordaindutako primetarako; hau da, aurreko 4. zerbakiaren azken paragrafoak aipagai dituenetarako.

b') Urteko 8.000 euro, gizarte-aurreikuspeneko sistemetara enpresek eginiko ekarpenetarako, baldin eta partaideei, aseguratuei edo mutualistei

egotzitako ekarpenak badira. Zenbateko horretatik goiti egiten duten ekarpen egotziak kontuan hartuko dira aurreko a) letran aurreikusten den gehieneko muga bateratua aplikatzeko ondorioekin”.

Zioak: Zuzenketa horren bidez, pentsio-plan indibidualen fiskalitatea berreskuratuko nahi da, eta enpleguko pentsio-planari benetako bultzada eman nahi zaie, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen modu bertsuan, non zerga-sistema horrek borondatezko gizarte-aurreikuspen indibidual eta kolektiboaren arrakasta lortzen laguntzen duen. Pentsio-planen fiskalitatea bereziki babestu behar da, pentsioen estaldura publikoaren sistema osagarri gisa. Gizarte-aurreikuspeneko mota hori sustatu nahi bada, beharrezkoa da ekarpenaren unean plan horien aldeko apustua egitea, pizgarri fiskal egokiarekin. Ez dezagun ahaztu pizgarri horiek ez dutela eragiten planak salbuetsita egotea, baizik eta tributazioa prestazioen unera arte geroratzea. Izan ere, ahalegin hori berreskuratuko da, diru-kutxa publikoetara itzuliko baita, tributatu ez zuenak tributatu baitu, eta pixkanaka eginen du, tarifa orokorraren arabera. Bestalde, banakako planen mugak jaisteak zuzenean eragiten die autonomoek aurrezteko dituzten aukerei.

Azkenik, eta neurri horrekin lotuta, enpresa txiki eta ertainek enpleguko pentsio-planak susta ditzaten, Sozietateen gaineko Zergan kenkari bat egitea proposatzen da; izan ere, sektore horiek dira, beren ahalmenak direla eta, tresna horien erakarpen gutxien sentitzen dutenak.

11. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginako 60 artikulua aldatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
-	-	6.000	19
6.000	1.140	44.000	21
50.000	10.380	150.000	23
200.000	44.880	Gainerakoa	26”

Zioak: Egungo egoera zuzentzea da kontua, zeren eta gaur egun Nafarroak aurrezkiari Espainia osoko zerga garestienak ezartzen baitizkio, bai aplikatu beharreko tasetan, bai karga ezartzen zaion oinarri likidagarriaren tartetean. Egoera diferentzial negatibo hori zuzentzeko, proposatzen da Estatuan 2021erako aurreikusten diren oinarriak eta tasak aplikatzea. Era berean, banakako aurrezpena sustatu nahi da, gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenengatik zerga-oinarriaren zati orokorra murrizteko gehieneko muga indibidualen murrizketari aurre egiteko, Nafarroako Gobernuak aurkeztutako Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk ezartzeko Foru Lege proiektuaren lehen artikuluko hamahirugarren apartatuan aurreikusten den moduan.

12. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginako 62.2) artikulua aldatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“a) Subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzen badu, zergaldian ordaindutako diru kopuruen ehuneko 15eko kenkaria aplikatu ahalko du, gehienez ere 1.500 euroko kenkaria urtean.

Hogeita hamar urte baino gutxiago dituzten edo familia ugari baten titularrak diren zergadunentzat, ordea, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria ehuneko 25ekoa izanen da, eta urtean 1.800 eurokoa gehienez ere.

Ondorio horietarako, ordaindutako diru kopuruetatik kenduko da zergadunak etxebizitzaren errentarako jasotako diru-laguntzen zenbatekoa, halakorik bada, baldin eta diru-laguntza horiek salbuetsita badaude, zerga honen araudia aplikatuta.

b) Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zergadunaren adina edo familia ugariaren titulartasuna zehazteko, zerga sortzen den egunean duen egoerari erreparatuko zaio.

c) Baterako zerga-ordainketa hautatzen bada eta kenkari hori aplikatzeko eskubidea duten pertsona bat baino gehiago badaude, batzuk 30 urte baino gehiagokoak eta beste batzuk adin horretatik beherakoak, aurreko a) apartatuko bigarren paragrafoan adierazitako ehuneko eta muga aplikatuko dira.

d) Erabaki judizialaren bidez zergadunari familia-etxebizitzaren errenta osoa ordaintzeko betebeharra ezarri bazaio, zergadunak eskubidea izanen du artikulua honetan aipatutako kenkaria baliatzeko bere autolikidazioan. Betebehar hori bi zergadunek badute, kenkaria bien artean hainbanatuko da eta bakoitzaren autolikidazioan gauzatu da dagokien heinean, eta, betiere, artikulua honetako a) apartatuko lehenengo paragrafoan ezarritako ehuneko eta muga aplikatuko dira”.

Zioak: Etxebizitza-merkatuaren baldintzek, eta, zehazki, alokairu-merkatuaren baldintzek, zaildu egiten dute etxebizitza bat eskuratzea, eta horrek, aldi berean, zailtzen du pertsonarentzat eta gizartearentzat garrantzitsuak diren bizi-erabakiak hartzea, hala nola familia baten emantzipazioa edo familia bat osatzea. Proposamen honen bidez alokairuaren alde egin nahi da, hain zuzen ere etxebizitza eskuratzeko zailtasun handienak dituztenentzat, bereziki gazteentzat.

13. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginako 62.9. c) artikulua aldatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“c) Ondorengo eta aurreko ahaideak, beste ahaide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zaintzeagatik:

Familiaren etxean honako pertsona hauek zaintzen lan egiten dutenekin formalizatutako kontratuen ondorioz Gizarte Segurantzari egiten zaizkion kotizazioengatik subjektu pasiboak zergaldian ordaindutako kopuruen ehuneko 100eko kenkaria aplikatu ahalko da:

a) Hamasei urtetik beherako ondorengoak. Ondorio hauetarako, ondorengo ahaideekin partekatuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako moduan egindako tutoretza edo harreragatik subjektu pasiboarekin lotura duten hamasei urte baino gutxiagokoak. Halaber ondorengoekin partekatuko dira epailearen aginduz subjektu pasiboaren zaintza eta babesaren pean dauden pertsonak, lehengo kasuetan ez daudenak.

b) Subjektu pasiboari eskubidea ematen dioten artikulua honetako b) letrako a) eta c) letratan aurreikusitako gutxieneko familiarrarengatik kenkaria aplikatzeko, edo hamahirugarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzetan pertsona

lagunduaren izaera duten ahaideengatiko kenkaria aplikatzeko.

c') Ezkontza bidezko aurreko ahaideak, anai-arrebak eta osaba-izebak, artikuluko honen b) letrak a') eta c') letretan aurreko ahaideentzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Murritzapen hori ere aplikatzen ahalko da subjektu pasiboa bera zaintzeko formalizatutako kontratuen kasuan, hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo 100eko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna frogatzen badu.

Familia ugarietako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera, familia ugariaren titular diren zergadunen kasuan, Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriaren 100eko 5 kendu ahal izanen da, c) letra honetako a'), b') edo c') letretan aurreikusitako pertsonak zaintzen familia-etxean lan egiten duten pertsonekin formalizatutako kontratuen ondorioz. Kenkari bera aplikatuko da guraso bakarrek familientzat

Zioak: Helburua da 2021era luzatzea abian den urtean ezarritako neurri bat, zeinaren zentzua mantendu egiten baita; izan ere, COVID-19ak sortutako inguruabarrak, bereziki ekonomikoak, gainditzeko, denbora luzeagoa beharko da. Kenkari horrekin, alde batetik, handitu egiten dira familiek mendeko pertsonak zaintzeko izan ditzaketen aukerak. Bestalde, arauan jasotako eginkizunak bete ditzaketen pertsonak kontratatzea sustatzen da.

14. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginako 62.15 artikulua aldatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“62.15. artikulua 0-3 urteko haur hezkuntzako ikastetxeetako gastuengatiko kenkaria

Hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten zergadunek, artikuluko honen 9. apartatuko b) letran aurreikusitako gutxieneko familiarrarengatiko kenkaria aplikatzeko eskubidea badute eta beren kontura edo besteren kontura jarduera bat egiten badute eta jarduera horren ondorioz Gizarte Segurantzako edo mutualitateko araubidean alta emanda badaude, hiru urtetik beherako semea edo alaba zaintzeko gastuengatik zergaldian

ordaindutako zenbatekoak kendu ahal izanen dituzte, urteko 850 euroko mugarekin.

Seme-alaba adingabeak hiru urte betetzen dituen zergaldian, artikuluko honetan aurreikusitako kenkaria aplikatu ahal izanen zaie adin hori bete ondoren egindako gastuei, haur-hezkuntzako bigarren zikloa hasi aurreko hilabetera arte.

Ondorio horietarako, zaintza-gastutzat hartuko dira haurzaindegiei, etxe lagunei eta adingabe horien aurreinskripzioak eta matrikulak baimendutako beste haur-hezkuntzako zentro batzuei ordaindutako zenbatekoak, asistentzia, ordutegi orokor eta zabalduan, eta elikadura, baldin eta hilabete osoko gertatu badira eta gauzako lanaren etentzat hartzen ez badira, lege honen 15. artikuluko 2. apartatuko b) letran xedatutakoa aplikatuz. Halaber, ordaindutako diru kopuruetatik kenduko da zergadunak kontzeptu horrengatik jasotako dirulaguntzen zenbatekoa, halakorik bada.

Abenduaren 31n Familia Ugarietako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen arabera familia ugariaren edo familia gurasobakarraren titular diren zergadunen kasuan, Nafarroako Foru Komunitatean guraso familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legean ezarritakoaren arabera, artikuluko honen lehen paragrafoan aurreikusitako muga 1.000 eurokoa izanen da.

Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute kenkaria aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Berdin jokatuko da ondorengo ahaideen zaintza partekatuaren kasuetan”.

Zioak: Etxe askoren egoera aldatu egin da pandemiaren eta krisialdi ekonomiko bateratuaren ondorioz. Kasu batzuetan, diru-sarrerak murriztuta. Beste batzuetan, zailtasun handiagoak dituzte bizitza pertsonala eta lana uztartzeko. Era berean, haurzaindegiek, etxe lagunek eta haur-hezkuntzako beste zentro batzuek oso jarduera txikia izan dute. Kenkari hori pizgarri bat da, zerbitzu bat eskaintzen dutenentzat eta erabiltzen dutenentzat onuragarria den zerbitzua ematea errazteko.

15. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginako 62.16 artikulua aldatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“62.16. artikulua. Kenkaria, kenkarirako eskubidea ematen duten hiru ondorengo ahaide edo gehiago izateagatik eta familia ugariarengatik zein familia gurasobakarrarengatik.

Abenduaren 31n Familia Ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen arabera familia ugariaren edo familia gurasobakarraren titular diren zergadunek, Nafarroako Foru Komunitatean guraso familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legean ezarritakoaren arabera, eskubidea izanen dute 400 euroko kenkaria aplikatzeko.

Familia Ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen arabera kategoriatu bereziko familia ugariaren edo kategoriatu bereziko familia gurasobakarraren titular diren zergadunen kasuan, Nafarroako Foru Komunitatean guraso familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legean ezarritakoaren arabera, kenkaria 600 eurokoa izanen da.

Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute kenkaria aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Berdin jokatuko da ondorengo ahaideen zaintza partekatutaren kasuetan”.

Zioak: COVID-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomikoak eta horren ondorioz etxe askotan izandako diru-sarreraren beharrek eragin berezia dute familia ugarietan eta guraso bakarrek familietan, bai lehen kasuan diru-sarrerak lortzen dituztenen kargura dauden pertsonen kopuruagatik, bai bigarren kasuan guraso bakarrek familiaren kargura dagoen pertsonaren diru-sarreraren ordezkari edo osagarri diren diru-sarreraren faltagatik. Kenkari horrek, etxe horiei mesede egiteaz gain, pizgarri gehigarri bat ere bada, jaiotza-tasa sustatzeko, zahartzen ari den gizarte batean egoera ekonomikoa okerragotzeko arriskuan baitago.

16. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari 68.sexies artikulua gehitzea. 2021eko urtarilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“68. sexies artikulua. Lanarengatik eta amatasunarengatik kenkaria.

1. Hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten emakumeek, lege honen 62. artikuluan 9. apartatuan aurreikusitako kenkaria aplikatzeko eskubi-

dea badute eta beren kontura edo besteren kontura jarduera bat egiten badute eta jarduera horren ondorioz Gizarte Segurantzako edo mutualitateko araubidean alta emanda badaude, zerga honen kuota diferentziala 1.200 eurora murriztu ahal izanen dute urtean, hiru urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko.

Adopzioaren edo harreraren kasuetan, adopzio aurrekoa zein iraunkorra izan, kenkaria aplikatu ahal izanen da, adingabearen adina edozein dela ere, Erregistro Zibilean inskribatu eta hurrengo hiru urteetan.

Inskripzioa beharrezkoa ez denean, kenkaria egin ahal izanen da inskripzioa deklaratzeko duen ebazpen judizial edo administratiboa eman eta hurrengo hiru urteetan.

Ama hiltzen den kasuetan, edo zaintza eta jagoletza eskusiboki aitari edo, hala badagokio, tutore bati esleitzen zaizkionean, artikulua honetan aurreikusitako baldintzak betetzen baditu, tutoreak eskubidea izanen du egiteko dagoen kenkaria egiteko.

2. Aurreko 1. apartatuan aurreikusitako kenkaria kalkulatu da apartatu horretan ezarritako baldintzak aldi berean betetzen direneko hilabete kopuruaren arabera, eta seme-alaba bakoitzerako mugatzat hartuko dira Gizarte Segurantzari eta mutualitateei guztira ordaindu beharreko kotizazioak eta kuota, jaiotzaren edo adopzioaren ondoren zergaldi bakoitzean sortutakoak.

Muga horiek kalkulatzeko ondorioetarako, kotizazio eta kuota horien zenbateko osoak hartuko dira aintzat, legezkiekeen hobariak kontuan hartu gabe”.

Zioak: Emakumeek amatasuna eta beren lanbide- edo lan-bizitza bateragarri egiteko dituzten zailtasunek ondorio negatiboak eragiten dituzte haien zailtasun eta gizarte osoarentzat, bai jaiotza-tasa txikiagoari dagokionez, bai jardueraren eta enplegu-tasa txikiagoari dagokionez. Errealitate hori larriagotu egin daiteke krisi ekonomikoaren eraginez. Hemen proposatutako artikuluetan jasotakoaren moduko zerga-pizgarriek emakumeek aurre egin beharreko aukera hobetzeko joera dute.

17. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,
ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren lehen artikuluari hogeita lau bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Hogeita lau bis. Hirurogeita bigarren xedapen gehigarria gehitzea; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak

“Hirurogeita bigarren xedapen gehigarria. Zuzeneko zenbatespen bereziko atxikipenak eta ordainketa zatikatuak.

1. Etekin garbia zuzeneko zenbatespen bereziko araubideari jarraikiz zehazten denean, honako jardueren kontraprestazio gisa ordainduriko guztizko diru-sarreraren gaineko ehuneko 1eko atxikipen-tasa aplikatuko da:

IEkonomia-jardueren gaineko Zerga	EKONOMIA-JARDUERA
722	Errepide bidez egiten den merkantzien garraioa
757	Aldaira-zerbitzua

2. Subjektu pasiboak ez dira behartuta egonen 1. apartatuak aipatzen dituen jarduerengatik konaturako ordainketak egitera, apartatu horren aplikazioaren ondorioz haien diru-sarrerak atxikipenpean daudenean.

3. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoa erregelamendu bidez aldatu ahalko da”.

Zioak: Foru lege proiektuak bertan behera uzten du enpresa-jardueren etekin garbia zehazteko zenbatespen objektiboko araubidea, eta zuzeneko zenbatespenaren modalitate berri bat jasotzen du, “zuzeneko berezi” deritzona, beste araubide hura aplikatu zezaketen subjektu pasiboek aplikatu ahalko dutena, oro har.

Zuzenketak xedea du eustea errepedezko salgai-garraioan eta aldaira-zerbitzuan diharduten subjektu pasiboek etekin garbia zenbatespen objektiboko araubidearen bidez zehazten zuteneko betebeharrak, honako kasuari begira: 2021etik aurrera zuzeneko zenbatespen bereziaren modalitate berriari jarraikiz zehatz dezatela;

hau da, konaturako ordainketarik ez egitea eta jardueraren ondoriozko guztizko diru-sarrerari ehuneko 1eko atxikipena egitea.

18. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginako hirurogeita bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hirurogeita batgarren xedapen gehigarria. Enpresen eraldaketa digitalerako kenkaria.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, jarduera ekonomikoak egiten badituzte eta beren jardueraren etekin garbia zuzeneko zenbatespenpean zehazten badute, enpresen eraldaketa digitalerako kenkaria egin ahal izanen dute, 2021. urtean egindako gastu eta inbertsioengatik, ekainaren 17ko 6/2020 Foru Lege Dekretuaren 13. artikuluan aurreikusitako moduan”.

Zioak: Koronabirusak eragindako osasun- eta ekonomia-krisiak agerian utzi du zer-nolako garrantzia duen enpresen digitalizazioak erronka berriei aurre egiteko. Enpresa txikien eraldaketa digitala bultzatzeko, Koronabirusaren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onetsi zituen ekainaren 17ko 6/2020 Foru Lege-dekretuak PFEZaren kuota osoan 2020. urteko gastu eta inbertsioen ehuneko 30eko kenkaria ezarri zuen, merkataritza elektronikoa ezartzeko, administrazio-prozesuak digitalizatzeko (fakturazioa, salmentak, kontabilitatea) hodeirako sarbideak eskura ipintzeko, web-orriak egiteko eta internet bidezko ordainketa-sistemak ahalbidetuko dituen softwarea erosteko egindako inbertsioengatik. Neurri horren bidez, 2021. urtean egindako gastuei eta inbertsioei kenkaria aplikatzea zabaldu nahi da.

19. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari hirurogeita hirugarren xedapen gehigarria gehitzea. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hirurogeigarren xedapen gehigarria. Dohaintzengatikoen kenkaria COVID-19aren testuinguruan.

a) Mediku-ikerketetan parte hartzen duten edo COVID-19ak eragindako osasun-krisia arintzen jarduten duten entitateei edo erakundeei dohaintzak egiten bazaizkie, dohaintza horien zenbatekoaren 100eko 30eko kuota likidoa kentzeko eskubidea izanen da.

b) Kenkariaren oinarria honako hau izanen da:

a') Diruzko dohaintzetan, haien zenbatekoa.

b') Ondasun edo eskubideen dohaintzetan, eskualdaketa egiten den unean daukaten kontabilitate-balioa eta, halakorik ezean, ondarearen gaineko zergaren arauekin bat zehaztutako balioa.

c) Aurreko letran xedatutakoari jarraikiz zehaztutako balioaren gehieneko muga izanen da eskualdatutako ondasunak edo eskubideak eskualdaketa unean merkatuan duen balio arrunta.

d) Kenkari horren oinarria 64. artikulua 1. apartatuaren lehen paragrafoan aurreikusitako mugaren ondorioetarako zenbatuko da, eta kontuan hartuko da 1. apartatu horren bigarren paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako.

e) Nafarroako Gobernuak zehaztuko du zein diren ikerketa medikoetan parte hartzen duten edo COVID-19ak eragindako osasun-krisia arintzen diharduten entitateak edo erakundeak. Kenkari hori erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan justifikatu beharko da”.

Zioak: ikerketa medikoetan parte hartzen duten edo COVID-19ak eragindako osasun-krisia arintzen diharduten entitate edo erakunde mota horiei dohaintzak eman dakizkien sustatu nahi da. Lurralde erkidean, dohaintzengatikoen kenkaria % 5 handitu da.

20. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 8. artikulua A) 1 apartatua aldatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“A) Arau orokorrak:

1. Zergari buruzko Foru Legearen 14.1.d) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, salbue-

tsita izanen dira lokomozio-gastuetarako eta ostalaritza-establezimenduetako mantenu- eta egonaldi-gastu arruntetarako esleipenak, artikulua honetan adierazitako baldintzak eta mugak betetzen dituztenak, bai eta urrutiko lanaren edo telelanaren kasuan lan-jardueraren garapenarekin lotutako ekipo, erreminta eta bitartekoekin lotutako gastuetarako esleipenak ere.

Urrutiko lanaren edo telelanaren kasuan, lan-jarduera garatzearekin lotutako ekipo, erreminta eta bitartekoekin lotutako gastutzat hartuko dira, besteak beste, honako hauei dagozkienak: elektrizitatea, telefonia, interneteko konexioa, ohiko etxebizitzaren berokuntza eta langileak erositako bulego-materialak, urtean 2.000 euroko mugara bitarte”.

Zioak: Ikusi da urrutiko lana edo telelana normalizatu egin dela, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz. Hori dela eta, beharrezkoa da lana garatzeko modu horrek dakartzan zerga-ondorioak arautzea. Urrutiko lanaren edo telelanaren kasuan, lan-jardueraren garapenarekin lotutako ekipo, erreminta eta bitartekoekin lotutako gastuetarako esleipenetik salbuestearen arrazoiak da ez litzatekeela diferentziarik egon behar lantokian eskura jarritako bitartekoen eta urrutiko lana egiteko eskura jarritako postuen artean. Gainera, telelana sustatu nahi da, enpleguarentzat abantaila eztabaidaezinak baititu hainbat mailatan: osasun-mailan — lanera joateak eragindako istripu-arriskua desagertzen da, lanera joateak eragindako estresa murrizten da eta bat-bateko pandemia batez, COVID-19arekin gertatu den bezala, kutsatzeko arriskua murrizten da—, lan-mailan — errendimendua handitzen da eta, ondorioz, enpleguaren jardunaren ebaluazioa hobetzen da, lantokira joan behar ez izateak eta kontzentrazio-gaitasuna hobetzeak dakarren denbora aurrezteagatik— eta lana eta familia-bizitza bateragarri egitearen mailan —ordutegi-malgutasun handiagoa ahalbidetzen du—.

Antzeko neurriak daude Europako beste herrialde batzuetan, hala nola Erresuma Batuan, Belgikan eta Holandan, bai eta Kanada eta Australia bezalako beste herrialde batzuetan ere.

21. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 20.1. artikulua 1. apartatua aldatzea. 2021eko urtarrilaren

1etik aurrerako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“1.a Zordunen kaudimengabeziaren ondorioz kredituen balio-galtzeak ekarritako galerak kengarriak dira, zergaren sortzapenaren unean honako inguruabarretakoren bat tartean bada:

a) Obligazioaren mugaegunetik hiru hilabeteko epea pasatua izatea.

b) Zorduna konkurtso egoeran izatea.

c) Zorduna edo, entitate bat baldin bada, haren administratzaile edo ordezkarietakoren bat ondusunak ostentzeagatik auziperatua izatea.

d) Obligazioak auzitegian erreklamatuak izana edo kobratu ahal izatea auzi baten edo arbitraje prozedura baten konponketaren baitan egotea.

Aurrekoa gorabehera, zordunen balizko kaudimengabeziatik eratorritako kredituen narriaduragatik galerak kengarriak izanen dira, aurreko b) eta d) letretan aurreikusitako inguruabarrak zergaren autolikidazioa aurkezteko epea hasi aurretik gertatzen direnean”.

Zioak: COVID-19aren ondorioz gaur egun bizi dugun krisi sanitarioa dela-eta aurreikusitako krisi ekonomikoak, zalantzarik gabe, zordunen kaudimengabezia ugari ekarriko ditu berekin, gure ekonomiak aurrez jasan dituen krisi ekonomikoetan egiaztatu ahal izan den bezala, eta horren eraginez enpresak behartuta egonen dira kreditu jakin batzuen balio-narriadurek eragindako gastuak kontabilitatean erregistratzera. Testuinguru horretan, bi neurri sartu dira Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarria zergaren subjektu pasiboan benetako ahalmen ekonomikora hurbiltzeko helburuarekin:

– kreditu bat fiskalki kengarritzat jotzeko igaro behar den epea sei hilabetetik hiru hilabetera murriztea proposatzen da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 20.1.1 artikulua a) letraren arabera.

– b) eta d) letren aplikazioa errazten da, horiek betetzeko aukera aldi baterako aurreratuz. Gipuzkoako proiektuan aurreikusitako neurria.

22. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren

bigarren artikuluar lehenengo apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Orain arte 1. apartatua izandakoa 1. bis apartatua izanen da.

Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Bat. 24.1. artikulua, hirugarren paragrafoa. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan izanen ditu efektuak.

“Mozkin operatiboa zehaztuko da abiapuntu-zat harturik ekitaldiko galera-irabazien kontuko ustiapen-emaitza, Merkataritza Kodeari eta garapena egiteko gainerako kontabilitate-araudiari jarraikiz zehaztua, eliminatuz ibilgetuaren amortizazioa, ibilgetu ez-finantzarioaren dirulaguntzen eta besteren egozpena eta ibilgetuaren narriadura eta besterentzeengatik emaitza, eta gehituz ondare-tresnetako partaidetzetatiko diru-sarrera finantzarioak, baldin eta badagozkie dibidenduei edo halako entitateetako partaidetzei non partaidetza-portzentajea, zuzenekoa edo zeharkakoa, gutxienez ere ehuneko 5ekoa baita, salbu eta partaidetza horiek eskuratu direnean halako zorrek zeinen gastu finantzarioak ez baitira kengarri 23.1.g) artikulua aplikazioa tarteko”.

Zioak: Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak mozkin operatiboa zehazteko aintzat hartuak izateari dagokionez, bertan behera uzten da partaidetzaren eskuratze-balioa hogeit hamar milioi euro baino handiagoa izatearen betekizuna, gastu finantzarioen kengarritasuna mugatzearen ondorioetarako. Beraz, aldaketa honekin, kontuan hartuko dira ehuneko 5eko gutxieneko partaidetza egiten duten partaidetzengatik dirusarrera finantzarioak bakarrik, Espainiako lurraldeko entitate egoiliarren eta ez-egoiliarren funts berekien balore adierazgarrien eskualdaketa ondoriozko errenten eta dibidenduen salbuespenerako ezarritako ildo berean.

Zuzenketa honen edukia bat dator zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru lege proiektuari (10-20/LEY-00017) aurkezturiko zuzenketa-multzo honekin:

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluar bi bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluar lau bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren

bigarren artikuluko bederatzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamar bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamaika bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamaseigarren apartatua gehitzeko zuzenketa.

23. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 25. artikuluari 12. zenbakia gehitzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“12 Konkurtso-prozeduren esparruan ekoizpen-unitateak eskualdatzen direnean, baldin eta eskualdatze horietan aktibo identifikagarrien balioa ken onartutako pasiboen balioa egitearen emaitza handiagoa bada negozio-konbinazioaren kostua baino, eskuratzailerak, zerga-ondorioetarako, batzuk eta besteak baloratu beharko ditu, eta transakzioaren kostua horien guztien artean banatu, beren arrazoizko balio erlatiboan arabera”.

Zioak: COVID-19aren ondorioz gaur egun bizi dugun krisi sanitarioaren ondoren aurreikusitako krisi ekonomikoak, tamalez, konkurtso-prozedura ugari sortuko ditu enpresa-eremuan, alarma-egoeraren epeen etetea desagertzen denean.

Ildo horretan, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, arau berezi berri bat ezartzen da, konkurtso-prozeduretan ekoizpen-unitateak eskuratzeari buruzkoa.

Kontabilitate-arauekin bat etorritik, konkurtso-prozedura batean unitate produktibo bat eskuratzeko denean, unitate produktiboarekin jasotako aktiboen arrazoizko balioa unitate horrengatik ordaintzen duen prezioa baino handiagoa bada, kontabilitateko diru-sarrera bat sortuko da, aktiboen arrazoizko balioan baloratu behar direlako kontabilitateko ondorioetarako.

Zuzenketa-aurik ez badago, orain arte gertatu den bezala, fiskalitatea galga bat izan daiteke konkurtso-prozeduretan ekoizpen-unitateak eskuratzeko, hain zuzen ere gainbalio tazitu horiei dagokien sozietateen gaineko zerga ordaindu behar izatearen ondorioz, eta zaildu egiten du indarrean dagoen konkurtso-legeriaren aitortutako xedea, hau da, lehiakidearen enpresa-jardueraren jarraitutasuna. Neurri hori Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako sozietateen gaineko zergaren foru-arauetan aurreikusita dago.

24. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari bi bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Bi bis. 35. artikulua, 1.a) apartatuaren lehen paragrafoa eta 6.a) apartatua aldatzea eta 11. eta 12. apartatuak gehitzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“a) Entitatearen kapitaleko edo funts berekieta-partaidetza, zuzeneko edo zeharkakoa, ehuneko 5ekoa izatea, gutxienez”.

“a) 4. apartatuan ezarritako baldintzak betetzea. Dena den, partaidetza-ehunekoari buruzko baldintza bete dela ulertuko da ehuneko hori iritsi baldin bada eskualdaketa gertatzen den egunaren aurreko urteko uneren batean”.

“11 Artikulu honetan jasotako salbuespena aplikatzekoa zaien dibidenduen edo entitateen mozkinetako partaidetzen zenbatekoa, bai eta entitate bateko partaidetzaren eskualdaketa eta 4. apartatuak aipaturiko gainerako kasuetan lorturiko errenta positiboaren zenbatekoa ere, ehuneko 5 murriztuko da salbuespen hori aplikatzearen ondorioetarako, partaidetza horiekin loturiko kudeaketa-gastu kontzeptuan.

12. Aurreko apartatuak aipaturiko entitateen dibidenduei edo mozkinetako partaidetzei aplikatzekoa den murrizketa ez da aplikatuko honako inguruabar hauek biltzen direnean:

a) Entitate dibidendu-hartzailea:

1. aurre-aurreko zergaldian izan duen negozio zifraren zenbateko garbia 40 milioi euro baino gutxiagokoa izatea.

Negozio zifraren zenbateko garbia zehazte aldera, aplikatzekoa izanen da 12.1.a) artikuluko bigarren eta hirugarren paragrafoek xedaturikoa.

2. ez da ondare-entitatetzat hartua izan behar, 8.2 artikulua ezarritako moduan.

3. ez du partaide izan behar, b) letrak aipaturiko entitatea eratu aurretik, Merkataritza Kodeko 42. artikulua araberako sozietate-talde batean, zein ere diren egoitza eta uirteko kontu bateginak aurkezteko betebeharra.

3. ez du zuzeneko edo zeharkako partaidetzaren portzentajerik izan behar, b) letrak aipaturiko entitatea eratu aurretik, beste entitate baten kapitalean edo funts berekietan, ehuneko 5ekoa edo handiagoa denik.

b) dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak etortzea 2021eko urtarrilaren 1aren ondoren eraturiko entitate batetik, zeinetan, zuzenean eta eratu zenetik, kapitalaren edo funts berekien osotasuna edukitzen baitira.

c) dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak jasotzea horiek banatzen dituen entitatea eratu zen urtearen aurre-aurreko eta ondo-ondorengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan”.

Zioak: Espainiako lurraldean egoiliar eta ez-egoiliarn diren entitateen funts berekien balio adierazgarrien eskualdaketa ondo-ondorengo dibidendu eta errenten salbuespena ehuneko 5 murrizten da, partaidetza horiei loturiko kudeaketa-gastuen kontzeptuan.

Ehuneko 100eko salbuespenari eutsi egiten zaio 40 milioi euro baino gutxiagoko negozio-zifra duten entitate ez-ondarezkoek jasotako dibidenduentzat, dibidendu horiek datozenean 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera eraturiko entitateen kapitalaren ehuneko 100ean partaidetza izatetik. Hori aplikatu ahalko zaie dibidenduei bakarrik (ez gainbalioei), jasotzen direnean horiek banatzen dituen entitatea eratzen den urtearen aurre-aurreko eta ondo-ondoko hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan.

Salbuespena aplikatzean, partaidetzaren ehunekoa besterik ez da kontuan hartuko. Orain arte partaidetza ehuneko 5 baino txikiagoa zen, baina partaidetzaren balio fiskala 30 milioi euro baino gehiagokoa izanez gero modua zegoen salbuespena aplikatzeko, baldin eta partaidetzaren gainarako betekizunak betetzen baziren. Aldaketak dakar salbuespenerako eskubidea izan dezatela

ehuneko 5eko gutxieneko partaidetza edukitzen den entitateetako partaidetzetatik heldutakoak diren gainbalioek edo dibidenduek bakarrik, zein ere den haien eskuratze-balioa.

Zuzenketa honen edukia bat dator zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru lege proiektuari (10-20/LEY-00017) aurkezturiko zuzenketa-multzo honekin:

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikulua lehenengo apartatu bat gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikulua lau bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluko bederatzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikulua hamar bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikulua hamaika bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikulua hamaseigarren apartatua gehitzeko zuzenketa.

25. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 37.1. artikulua aldatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“1 Ez dira zerga-oinarrian sartuko ibilgetu materialaren ondare-elementuetatik, ukiezinetik eta ondasun higiezinetan egindako inbertsioetatik doan eskuratutako errentak —edo elementu horietatik lortutako errentak, baldin eta aktibo ez korrontetzat sailkatu badira, eskualdatu aurretik saltzeko mantendutakoak—, entitatearen ustiatze ekonomikoari lotuak egon eta, gutxienez ere, urtebetez funtzionamenduan egon badira eskualdake-

taren aurreko hiru urteetan, baldin aipatu eskualdaketen zenbatekoa esandako ondare-elementuetako edozeinetan berriz inbertitzen bada ondare-elementua entregatu edo eskura jarri baino urtebete lehenagotik ondoko hiru urte arteko epean.

Aurreko lerrokadan xedatua gorabehera, eskualdatze edo berrinbertsioaren xede diren ondare-elementuak turismo-automobilak eta horien atoiak, ziklomotorrak, motozikletak edo 23.4 artikuluan aipaturiko ibilgailuak izanez gero, 23.3.e) artikulua aipatzen dituenak bakarrik onartuko dira.

Finantza-errentamenduko kontratuen bidez egindako inbertsioak onartuko dira, nahiz eta, kontabilitate arauak aplikatzeagatik, inbertsio horiek ez kontatu ibilgetu gisa.

Berrinbertsioaren zenbatekoa eskualdaketen guztirakoa baino txikiagoa bada, aipatu eskualdaketen lortutako errentaren proportziosko zatia baino ez da zerga-oinarrian sartuko”.

Zioak: Ibilgetu materiala, ukiezina eta higiezinak inbertsioak eskuratzeko enpresa-mozkinak berrinbertitzen laguntzeko, uste da onura fiskala aipatutako eskualdatzeetan lortutako errenta gutietara iritsi behar dela, 2017ra arte zegoen modu berean eta Araban, Gipuzkoan edo Bizkaian dagoen modu berean.

26. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 42.1. artikulua 5. apartatua sartzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“5.a. 48.bis artikuluan ezarritako murriztapena”.

Zioak: Aldatu egiten da zergaren likidazio-oinarriaren definizioa, 16. zuzenketa aurreikusitako kapitalizazio-erreserba sartu delako.

27. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea:

Zenbaki berria. 43.1 artikulua, lehen paragrafoa. Likidazio-oinarri negatiboaren murrizketa.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, honako hau dioen tokian: “...aurreko hamabost urteetan...”, honako hau esan behar du: “...aurreko zazpi urteetan...”.

Zioak: Zerga-oinarri positiboaren murrizketa zazpi urtera mugatzea, gaur egungo hamabosten aldean, aurreko urteetako likidazio-oinarri negatiboak aplikatuta. Murrizketa hori gehiegizkoa dela uste dugu, eta beharrezkoa da enpresa-mozkinen gaineko zerga horren bidez bildutako diru-kopurua handitzea.

28. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea:

Zenbaki berria. 43.1 artikulua, lehen paragrafoa. Likidazio-oinarri negatiboaren murrizketa. Ondorioak, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasien diren zergaldietan.

“1. Aurre-aurreko zazpi urteetan amaitutako zergaldietako likidazio-oinarri negatiboek likidazioa edo autolikidazioa izan badute, zerga-oinarri positiboa murrizten ahal dute, 42.1.1.a eta 2.a artikulua aipatzen dituen murriztapenen zenbatekoa kendu eta gero, hala badagokio; honako muga hauek egonen dira:

a) Ehuneko 50, negozio zifraren zenbatekoa hogeita hamar milioi eurotik beherakoa denean.

b) Ehuneko 25, negozio zifraren zenbateko garbia hogeita hamar milioi eurokoa edo handiagoa denean”.

Zioak: Zerga-oinarri positiboaren murrizketa mugatzea, aurreko urteetako likidazio-oinarri negatiboak aplikatuta. Gehiegizkoa deritzogu zerga-oinarri positiboa % 70eraino murrizteari, Gainera, zuzenketa honekin Sozietateen gaineko

Zergaren hamazazpigarren xedapen gehigarrian araututako oinarri negatiboak konpentsatzeko muga berreskuratuko litzateke. Muga hori 2018 eta 2019ko ekitaldietarako baino ez zen onetsi. Enpresa-etekinen zerga-ordainketa handitu beharra dago.

29. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea:

Zenbaki berria. 43.1 artikulua, bigarren paragrafoa. Likidazio-oinarri negatiboen murrizketa.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin, bigarren paragrafoa ezabatzen da”.

Zioak: Zerga-oinarri positiboen milioi bat euroko murrizketa, orain arte egon dena, ezabatzen da. Neurri horrek enpresa-etekinen murrizketa mugatuko luke, aurreko urteetako likidazio-oinarri negatiboak aplikatuta.

30. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 43. artikulua 1. apartatua aldatzea eta 3. apartatua indarrik gabe uztea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“1 Aurreko zergaldietako likidazio-oinarri negatiboen likidazioa edo autolikidazioa izan badute, zerga-oinarri positiboa murrizten ahal dute, 42.1 2.a eta 3.a artikulua aipatzen dituen murriztapen zenbatekoa kendu eta gero, hala badagokio”.

Zioak: Konpentsazioaren xede diren kopuruetan hainbat muga sartu dira, dirua biltzeko helburu hutsarekin. Hala ere, eta Estatuak edo Euskal Autonomia Erkidegoak ez bezala, epe jakin bat aurreikusten jarraitzen da aipatutako 15 urteko likidazio-oinarri negatiboak aplikatu ahal izateko. Horrek eragin dezake enpresa askok beren likidazio-oinarri negatiboak behin betiko galtzea, aurreko ekitaldietan izandako galeren ondorioz, eta hori gaitasun ekonomikoaren printzipioaren aurka doa.

Eta, zehazkiago, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz jarduera eten edo murriztu zaien enpresen likidezia bultzatzeko asmoz, kendu egin dira enpresek aplikatu gabe dituzten zerga-oinarri negatibo guztiak konpentsatzea eragozten duten muga kuantitatiboak eta aldi baterakoak; izan ere, halakoek, egoera honetan, enpresen likidezia erraztu dezakete, bai eta osasun-krisia haien emaitzen kontuan eragiten ari den inpaktua geldiarazi ere.

31. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeari 48.bis artikulua gehitzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“1 Lege honen 56. artikulua 1. apartatua aurreikusitako karga-tasaren arabera zergak ordaintzen dituzten zergadunek eskubidea izanen dute beren funts propioen gehikuntzaren zenbatekoaren ehuneko 10eko murriztapena izateko zerga-oinarriari, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Erakundearen funts propioen gehikuntzaren zenbatekoa 5 urtez mantentzea, murriztapen horri dagokion zergaldia ixten denetik zenbatzen hasita, salbu eta entitatean kontabilitate-galerak badaude.

b) Murriztapenaren zenbatekoa duen erreserba ezartzea; erreserba hori balantzean agertu behar da, banantze eta titulu egokiarekin, eta ezin izanen da erabili aurreko letran aurreikusitako epean.

Eragin horietarako, ez da ulertuko erreserba hori erabili denik honako kasu hauetan:

a) Bazkideak edo akziodunak entitatetik bereizteko duen eskubidea erabiltzen duenean.

b) Erreserba erabat edo partzialki ezabatzen denean, lege honen VIII. tituluko VIII. kapituluaren zehaztutako zerga-araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketen ondorioz.

c) Entitateak erreserba hori legezko betebeharen ondorioz aplikatu behar duenean.

Apartatu honetan aurreikusitako murriztapen-eskubideak ez du inola ere gaitasun murriztapen horren aurreko zergaldiko zerga-oinarri positiboaren ehuneko 10eko zenbatekoa, 42.1 artikuluko 1., 2., 3. eta 4. apartatuetan adierazitako murrizta-

penen zenbatekoa murriztu ondoren, hala bada-gokio.

Hala ere, murrizketa aplikatzeko zerga-oinarri nahikorik ez badago, murrizketa-eskubidea sortu den zergaldia itxi eta hurrengo 2 urteetan amaitzen diren zergaldietan aplikatu ahal izanen dira ordaintzeke dauden zenbatekoak, bai eta dago-kion zergaldian artikulua honetan xedatutakoa aplikatzeagatik legokiokoen murrizketa ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako mugarekin.

2. Funts propioen gehikuntza ekitaldiaren itxieran dauden funts propioen (haren emaitzak sartu gabe) eta ekitaldiaren hasieran zeuden funts propioen (aurreko ekitaldiko emaitzak sartu gabe) arteko alde positiboaren arabera izanen da.

Hala ere, gehikuntza hori zehazteko, honako hauek ez dira zergaldiaren hasierako eta amaierako funts propiotzat hartuko:

- a) Bazkideen ekarpenak.
- b) Kredituak konpentsatzearen ondoriozko kapital-gehikuntzak edo funts propioak.
- c) Funts propioen zabalkuntzak, akzio propioekin edo berregituraketakoekin egindako eragiketengatik.
- d) Lege- edo estatutu-izaerako erreserbak.
- e) Finantza-tresna konposatuaren jaulkipen bati dagozkion funts propioak.
- f) Zerga honen karga-tasa handitzearen edo murriztearen ondorioz zerga geroratuen aktiboetan gertatutako aldaketei dagozkien funts propioak.

Partida horiek ere ez dira, ezta ere, kontuan hartuko galdagarria den zergaldi bakoitzean funts propioen gehikuntzari eustea erabakitzeko.

3. Artikulu honetan aurreikusitako baldintzak ez betetzeak bidegabeki murriztutako zenbatekoak erregularizatzea ekarriko du, baita dagozkien berandutze-interesak ere”.

Zioak: Beharrezkoa da enpresen finantzaketa lortzeko neutraltasuna azpimarratzea, denbora luzez besteren finantzaketaren alde egin duen balantza egonkortuz. Helburu horretan eragina du, bereziki, kapitalizazio-erreserba berriak.

Era berean, enpresen kapitalizazioa sustatu nahi da, ondare garbia handituz eta, horrekin batera, enpresen saneamendua eta lehiakortasuna sustatuz. Enpresa-kapitalizazioko erreserba hori sortuta, kaudimen handiagoarekin aurre egin nahi zaie krisi ekonomikoko egoerei, hala nola COVID-19aren osasun-egoerak eragindakoari.

32. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluar beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Zenbaki berria. 51.1. artikulua a) letra. Karga-tasak.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi diren zergaldietan izanen ditu ondorioak. Honako hau dioen tokian: “Ehuneko 28”, honako hau esan behar du: “Ehuneko 35”».

Zioak: Enpresa handientzako % 35eko karga-tasa berreskuratzea. Enpresa-etekin gaineko zerga horren bidezko bilketa handitu beharra dago.

33. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluar beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea:

Zenbaki berria. 51.3. artikuluko a) letraren bigarren lerrokada. Karga-tasak.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, honako hau dioen tokian: “...ehuneko 25eko tasa...”, honako hau esan behar du: “...ehuneko 35eko tasa...”».

Zioak: Landa-kutxei eta kreditu-kooperatibei % 35eko karga-tasa ezartzea. Banka pribatuaren gainerako entitateek bezala diharduten finantza-entitateak dira.

34. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluar beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Zenbaki berria. 51. artikulua. 7. apartatu berria gehitzen da. Karga-tasak.

51. artikuluari 7. aparatu berria gehitzen zaio, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin. Honela dio:

“7. % 75eko tasa ordainduko dute kirol-apus-tuak xede dituzten sozietateek, Jokoa Arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legean ezarritako kon-zeptuen arabera”.

Zioak: Enpresa horien ezarpena eragozteko eraginkorra izanen den zerga-tasa ezartzea.

35. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Zenbaki berria. 53. artikulua. 2. 2.a a). Gu-txieneko tributazioa.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi diren zergaldietan izanen ditu ondorioak. Honako hau dioen tokian: “Ehuneko 18”, honako hau esan behar du: “Ehuneko 25”».

Zioak: Enpresa handiei ehuneko 25eko gutxieneko zerga-tasa ezartzea. Enpresa-etekinen gaineko zerga horren bidezko bilketa handitu beharra dago.

36. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Zenbaki berria. 53. artikulua. 2. 3.a b) eta c) letrak. Gutxieneko tributazioa.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, ezabatu egiten dira 53. artikulua 2.3 apartatuko b) eta c) letrak.

Zioak: Gutxieneko tributazioa benetan gauzatzeari, hura murrizteko kasu gehigarriak kenduz (ekoizpen zinematografikoak eta ikerketa- eta garapen-gastuak). Murrizketa hori gehiegizkoa dela uste dugu, eta beharrezkoa da enpresa-mozkinen gaineko zerga horren bidez bildutako diru-kopurua handitzea.

37. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari lau bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Lau bis. 57. artikulua, 1.a) apartatua eta 4. apartatuko lehen paragrafoa. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“a) Egoiliar ez den entitatearen kapitaleko zuzeneko edo zeharkako partaidetza gutxienez 100eko 5ekoa izatea”.

“4 Kenkari honek, dibidenduei edo mozkinetako partaidetzei dagokienez 56. artikuluan ezarritakoarekin batera, ezin izanen du gaintitu Espainian errenta horiengatik ordaindu beharko litzatekeen kuota osoa, errenta horiek espainiar lurraldean lortu izanez gero. Kuota oso hori kalkulatzeko, dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak ehuneko 5 murriztuko dira, partaidetza horiei loturiko kudeaketa-gastu kontzeptuan. Murrizketa hori ez da eginen 35.12 artikuluan ezarritako inguruabarrak dituzten dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen kasuan”.

Zioak: 57. artikuluan nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko kenkaria jasotzen da (dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak). Kenkari hori 35. artikuluko salbuespenaren alterantiba gisa aplikatzen da (dibidenduen kasuan bakarrik, ez fainbalioenean), eta halaber da aplikatzeko 35. artikuluan jasotako baldintza berezietakoren bat ez betetzeagatik salbuespena aplikatzerik ez dagoen kasuetan.

Jasotzen diren aldaketak 35. artikuluko salbuespenerako berberak dira: batetik, bertan behe-ra uzten da kenkaria aplikatzeko aukera, partaidetza ehuneko 5 baino gutxiagokoa denean, zein ere den partaidetza-eskuratzearen balioa; eta, bestetik, ehuneko 5 murrizten dira dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, kudeaketa-gastu kontzeptuan, horiengatik Espainiako lurraldean ordaindu beharreko kuota kalkulatzeari dagokionez, eta horrek markatzen du kenkariaren gehieneko muga.

Zuzenketa honen edukia bat dator zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru lege proiektuari (10-20/LEY-00017) aurkezturiko zuzenketa-multzo honekin:

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari lehenengo apartatu bat gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari bi bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluko bederatzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamar bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamaika bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamaseigarren apartatua gehitzeko zuzenketa.

38. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Zenbaki berria. 61.1. artikulua. Kenkaria ikerketa eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, honako hau dioen tokian: "...ehuneko 40ko kenkaria kuota likidoan...", honako hau esan behar du: "...ehuneko 25eko kenkaria kuota likidoan..."».

Zioak: Gehiegizkotzat jotzen dugu kenkari hori. Enpresa-etekinen gaineko zerga horren bidezko bilketa handitu beharra dago.

39. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Zenbaki berria. 61.1. artikulua. Kenkaria ikerketa eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, ezabatu egiten dira 61.1. artikulua bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren paragrafoak.

Zioak: Kendu egiten da % 10eko kenkari gehigarri bat, % 40 orokorrari gehitu beharrekoa. Gehiegizkotzat jotzen dugu kenkari hori. Enpresa-etekinen gaineko zerga horren bidezko bilketa handitu beharra dago.

40. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluko bosgarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Bosgarren apartatuak aldatu egiten ditu 65. artikuluko 1. apartatua, 2. apartatuko seigarren paragrafoa eta 6. apartatuko c) letra. Zuzenketa aldatu egiten du 65.1 artikulua, eta gainerakoa proiektuan dagoen bezala uzten du.

"1.a) Espainiako film luze zinematografikoen eta ikus-entzunezko serieen (fikziokoak, animazioak edo dokumentalak) ekoizpenetan egindako inbertsioek, seriean egiteko ekoizpen industrialaren aurretik euskarri fisiko bat egitea ahalbidetzen dutenek, kuota likidoan ehuneko 35eko kenkaria egiteko eskubidea emanen diote ekoizleari.

Kenkariaren oinarria, zeina kultura alorrean eskudun den Nafarroako Gobernuaren organoaren ebazpen bidez zehaztuko baita, ekoizlearen inbertsioak osatuko du, baldin eta nafar lurraldean eginiko gastuak inbertsioaren ehuneko 40ra iristen badira. Bestelakoan, kenkari-oinarria izanen da

nafar lurraldean eginiko gastuak 0,4rekin zati-tzearen emaitza.

Tributuen arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu bidez zehaztuko dira kenkariaren oinarriaren parte izan daitezkeen gastuak, bai eta gastuak nafar lurraldean egintzat hartzeko irizpideak ere.

a) letra honen lehen paragrafoan ezarritako kenkari-portzentajea ehuneko 40koa izanen da kenkari-oinarriko lehen milioiarentzat, honako hauen kasuan:

1. Jatorrizko bertsio bakarra euskarazkoa duten ekoizpenak

2. Emakumezko zuzendariak baizik eginak ez diren ekoizpenak

3. Ekoizpen dokumentalak

4. Animazio-ekoizpenak

5. Inolako film luze zinematografikorik edo fikzio-, animazio- edo dokumental-alorrekoa den ikus-entzunezko serierik zuzendu edo kozuzendu ez duen pertsona baten zuzendaritzapeko ekoizpenak

Apartatu honetan araututako kenkariaren zenbatekoa ez da 5 milioi euro baino gehiagokoa izanen.

Koprodukzio baten kasuan, apartatu honek adierazitako zenbatekoak koekoizle bakoitzarentzat zehaztuko dira koprodukzioan duen partaide-tza-portzentajearen arabera.

b) Kenkaria obraren ekoizpena bukatzen den zergaldian sortu dela ulertuko da. Hala eta guztiz ere, ekoizpenak hamabi hilabete baino gehiagoko epea duenean edo entitatearen zergaldi batean baino gehiagotan eragiten duenean, entitateak zilegi izanen du kenkaria aplikatzea ordainketak egiten diren neurrian eta ordainketa horien zenbatekoan, kenkaria hasteko datan kenkarietarako indarrean dagoen araudia aplikatuz. Kasu horretan, kenkaria ordainketak egiten diren aldietan sortu dela ulertuko da.

c) Kenkari horri heldu nahi dioten zergadunek proiektuaren azalpen-memoria bat aurkeztu beharko dute Nafarroako Gobernuak kultura arloko zuzendaritza nagusi eskudunean, eta hark txosten bat emanen du proiektu horrek kenkariaren betekizunak eta baldintzak betetzen dituen argitzeko.

Txosten hori eskatzeko edukia eta prozedura zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak zehaztuko ditu.

Txostena eskatu ondoren, zergadunak sortutako kenkaria kontsignatzen ahalko du bere aitoren-likidazioan.

d) Kenkari hau aplikatzeko nahitaezkoa izanen da produkzioak dagokion naziotasun-ziurtagiria eskuratzea eta, halaber, edukiaren izaera kulturala dela, errealitate kulturalarekiko lotura duela edo Espainian aurkezten diren lan zinematografikoen aniztasun kulturalari egindako ekarpena dela egiaztatzen duen ziurtagiria, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak emana.

e) Naziotasun-ziurtagiria eskatu eta sei hilabete epean, zergadunak ekoizlearen inbertsioaren justifikazioa aurkeztu beharko dio kulturaren arloko eskumena duen Nafarroako Gobernuaren zuzendaritza nagusiari, bai eta kenkaria egiaztatzeko ezarritako gainerako betekizunak betetzearen justifikazioa ere, zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak zehazten dituen baldintzetan.

Aurreko paragrafoan adierazitako epea betetzen ez bada, aplikatutako kenkaria galduko da, eta 76.3 artikuluan ezarritakoaren arabera erregulizatuko da.

Kulturaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak, kenkaria justifikatzen duen dokumentazioa aurkezten denetik 6 hilabete epean, ebazpena eman eta jakinaraziko du. Ebazpen horretan, kenkariaren oinarria zehaztuko du, kontuan hartuta ekoizlearen inbertsioa eta nafar lurraldean eginiko gastuak.

Ebazpen horretan aitortutako kenkari-oinarria aitortutako kenkari-oinarria baino txikiagoa bada, zergadunak ordaindu beharko ditu, ebazpena jakinarazi den zergaldiko kuotarekin batera, bidegabeki aplikatutako kenkariari dagokion kuota osoa gehi berandutze-interesak”.

Zioak: Zuzenketak 65.1 artikulua aldatzen du, zeinak arautzen baitu ekoizpen zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan eginiko inbertsioengatikoko kenkaria.

Foru lege proiektuan, ekoizpen zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatikoko kenkariari segurtasun juridiko handiagoa emateko, kenkariaren oinarria aldatzen zen, eta ikus-entzunezko lanaren kostua aipatzen da, film baten kostuaren eta ekoizlearen inbertsioaren aitortzea arautzen duen abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduaren arabera. Ikusi ondoren ezen estatu-araudiari buruz eginiko erreferentzia horrek eta, batez ere, kenkaria aplikatu ahal izateko Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak kostua eta inbertsioa errekonoziti zitzan ezin-

besteko gisa exigitzeak gehiegizko zeharkako kostuak ekarriko zizkiola sektoreari, zuzenketak proposatzen du estatu-araudiari eginiko erreferentzia hori ordezte eta inbertsioa errekonozitzeko prozedura errazago bat ezartzea, zeina ez baitu Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak eginen, baizik eta kultura alorrean eskudun den Nafarroako Gobernuaren departamentuak. Kenkariaren aplikazioari segurtasun juridiko handiagoa ematearen helburuari eutsirik, inbertsioaren zenbatekoa, hots, kenkari-oinarriaren parte izan daitezkeen gastuak, tributu-alorrean eskudun den departamentuaren titularrak jaulkitako foru agindu baten bidez zehaztuko da.

Behin filma bukatuta, Kultura Zuzendaritza Nagusiak ebazpen bat jaulkiko du, zeinetan, aipatu foru aginduak ezarritako irizpideei jarraikiz eta kontuan hartuta eginiko nafar lurraldean eginiko gastuetatik eta inbertsioetik ekoizleak justifikatzen dituen gastuak, kenkari-oinarriaren zenbatekoa zehaztuko da. Halatan, zuzenketaren bidez eginiko aldaketak tarteko, bai aurretiatzeko bai ondorengo baliozkotzea kultura alorrean eskudun den Nafarroako Gobernuaren departamentuak eginen ditu, eta huts-hutsean foru araudia oinarri hartuta.

Azkenik, pizgarri gehigarri txiki bat ezartzen da (bost portzentaje-puntu gehiago kenkari-oinarriaren lehen milioiari dagokionez) finantzaketa lortzeko zailtasun gehiagokotzat jotzen diren zenbait ekoizpenetarako.

41. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeari 65.ter artikulua gehitzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“65.ter artikulua. Arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen produkzioko eta emaldiko gastuengatik kenkaria.

Arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen produkzioan eta emaldian egindako gastuek ehuneko 20ko kenkaria izanen dute.

Kenkariaren oinarria jarduera horietan sortutako zuzeneko kostu artistiko, tekniko eta sustapeneakoak izanen dira.

Zergaldi bakoitzean sortutako kenkariak ezin izanen du gaintitu zergadun bakoitzeko 500.000 euroko zenbatekoa.

Kenkari hau aplikatu ahal izateko, betebeharrak hauek bete beharko dira:

a) Zergadunak Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalaren ziurtagiri bat lortu izana horretarako, foru-agindu bidez ezartzen diren baldintzetan.

b) Kenkarirako eskubidea sortzen den ekitaldian jarduera horiek garatzean lortutako onuretatik, zergadunak gutxienez ehuneko 50 erabiltzea artikulua honetan aurreikusitako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten jarduerak egiteko. Aipatutako onurak lortu diren ekitaldiaren hasieratik ekitaldi hori itxi eta hurrengo 4 urteetara bitartekoa izanen da betebeharrak hori betetzeko epea.

Kenkari horren oinarria murriztu eginen da horretarako eskubidea sortzen duten gastuak finantzatzeko jasotako dirulaguntzen zenbatekoan. Kenkariaren zenbatekoak, zergadunak jasotako dirulaguntzekin batera, ezin izanen du gaintitu gastu horien ehuneko 80ko muga”.

Zioak: Kenkari berri hori proposatzen da Nafarroan jarduera ekonomikoa sustatzeko eta sortzeko esparruan, bai eta kultur jarduera foru-lurraldera erakartzeko esparruan ere. Zehazki, Nafarroan arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunak egitea sustatu nahi da.

Estatuan lehendik badagoen kenkaria da, eta, gainera, duela gutxi hobetu egin da, ekoizpenen filmaketa erakartzeko eta turismoa sustatzeko, eta 2020ko ekitaldian bertan izanen ditu ondorioak.

42. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeari 65. quater artikulua gehitzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“65.ter artikulua. Telelana sustatzeari lotutako gastu eta inbertsioengatik kenkaria.

1. Entitateak enplegatuen telelana sustatzeko egindako gastuek, telelana egin ahal izateko beharrezkoak diren ekipoak eta terminalak eskuratzeari edo eguneratzeari, haien softwareari eta lotutako periferikoei dagozkienek, edo ondasun horiek eskuratzeko maileguak eta laguntza ekonomikoak emateari dagozkionek, kuota osoari zergaldian egindako gastuen ehuneko 60ko kenkaria egiteko eskubidea ematen dute, gastu horiek egiteko jasotako dirulaguntzen, zergaldiko

diru-sarrera gisa egotzi ahal izanen direnen, zenbatekoaren ehuneko 75 kenduta.

Kenkari honek aipatzen dituen gastu eta inbertsioen artean, periferikotzat hartuko dira, besteak beste, monitoreak, teklatuak, saguak, bozgorailuak, inprimagailuak, webcamak, mikrofonoak, aurikularrak eta USB memoriak.

2. Enplegatuek telelanaren garapena errazteko asmoz erakundeak itzulitako gastuek (ohiko etxebizitzako elektrizitate-, telefonia- eta Internet-gastuak eta berokuntza-gastuak, eta enplegatuek egindako bulegoko materialen erosketa-gastuak) eskubidea emanen dute kuota osoan zergaldian itzulitako gastu horien zenbatekoaren ehuneko 60ko kenkaria egiteko, horri kenduta itzulketa horietarako jasotako dirulaguntzen, zergaldian diru-sarrera gisa egotzi ahal direnen, zenbatekoaren ehuneko 75.

Kenkari horren onuradun izan daitekeen langile bakoitzeko itzulitako gastuen urteko gehieneko zenbatekoa 2.000 euro da.

3. Kenkari hori urrutiko lanari buruzko irailaren 22ko 28/2020 Errege Lege Dekretua aplikatu behar zaien langileei aplikatuko zaie”.

Zioak: Ikusi da urrutiko lana edo telelana normalizatu egin dela, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz. Hori dela eta, beharrezkoa da lana garatzeko modu horrek dakartzan zerga-ondorioak arautzea. Gainera, telelana sustatu nahi da, enpleguarentzat abantaila eztaba daezinak baititu hainbat mailatan: osasun-mailan —lanera joateak eragindako istripu-arriskua desagertzen da, lanera joateak eragindako estresa murrizten da eta bat-bateko pandemia batez, COVID-19arekin gertatu den bezala, kutsatzeko arriskua murrizten da—, lan-mailan —errendimendua handitzen da eta, ondorioz, enpleguaren jardunaren ebaluazioa hobetzen da, lanpostura joan behar ez izateak eta kontzentrazio-gaitasuna hobetzeak dakarren denbora aurrezteagatik— eta lana eta familia-bizitza bateragarri egitearen mailan —ordutegi-malgutasun handiagoa ahalbidetzen du—.

43. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluko bederatzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Bederatzigarren apartatuak 83. artikulua aldatzen du. Zuzenketak aldatu egiten du artikuluko horretako 6. apartatuko lehen paragrafoa, eta gainerakoa proiektuan dagoen bezala uzten du.

“6 Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak ez dira zerga-oinarrian sartuko, zerga-oinarrian sartua izan den errenta positiboari dagokion zatian. Horri dagokionez, dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen zenbatekoa ehuneko 5 murriztuko da, partaidetza horiei loturiko kudeaketa-gastuen kontzeptuan, salbu eta 35.12 artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean. Tratamendu bera aplikatuko zaie konturako dibidenduei”.

Zioak: 26/2016 Foru Legeko 83.etik 85.era bitarteko artikuluek nazioarteko gardentasun fiskala arautzen dute, eta proiektuak osatu egiten dute zerga-saihestearen aurkako zuzentarau edo ATA-Drako egokitzapena.

Zehazki, proiektuko bigarren artikuluko bederatzigarren apartatuak aldatu egiten du Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 83. artikulua. “Egotz daitezkeen errentak”.

Zuzenketak artikuluko horren 6. apartatua aldatzen du, jasotze aldera dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen ehuneko 5eko murrizketa, kasuko partaidetzen kudeaketa-gastu kontzeptuan, halatan kalkulatzeko aldera zerga-oinarrian sartzeak ez diren haien zenbatekoa, egotzitako errenta positiboari dagozkien heinean. Laburbilduz, dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen ehuneko 5 integratuko da.

Zuzenketa honen edukia bat dator zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru lege proiektuari (10-20/LEY-00017) aurkezturiko zuzenketa-multzo honekin:

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari lehenengo apartatu bat gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari bi bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari lau bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren

bigarren artikuluari hamar bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamaika bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamaseigarren apartatua gehitzeko zuzenketa.

44. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamar bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Hamar bis. 85. artikulua, lehen paragrafoa. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“Zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza eskualdatzetik datorren errenta kalkulatzeko, eskurapen-balioari egiazki banatu ez diren onura sozialen zenbatekoa gehituko zaio. Onura sozial horiek bazkideei haien akzioen edo partaidetzen errenta gisa, eskurapenetik eskualdaketa doan aldian, egotziko zizkioketen errentei dagozkie. Ildo horretan, paragrafo honek aipagai dituen onura sozialen zenbatekoa ehuneko 5 murriztuko da, partaidetza horiekin loturiko kudeaketa-gastu kontzeptuan”.

Zioak: 26/2016 Foru Legeko 82.etik 85.era bitarteko artikuluek nazioarteko gardentasun fiskala arautzen dute.

Zuzenketa honek 85. artikuluko (“Partaidetzen eskualdaketa onduko errenta”) lehen paragrafoa aldatzen du, partaidetza horiei loturiko kudeaketa-gastu kontzeptuan ehuneko 5eko murrizketa jasotzeko, kasuko gainbalioa zehazterakoan.

Zuzenketa honen edukia bat dator zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru lege proiektuari (10-20/LEY-00017) aurkezturiko zuzenketa-multzo honekin:

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari lehenengo apartatu bat gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari bi bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari lau bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluko bederatzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamaika bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamaseigarren apartatua gehitzeko zuzenketa.

45. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamaika bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Hamaikagarrena bis. 104.2 artikuluari paragrafo bat gehitzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“35.11 artikulua ezarritakoa aplikatzeagatik banakako zerga-oinarrietan sartuak izan behar diren zenbatekoak ez dira eliminatuko”.

Zioak: 26/2016 Foru Legeko VIII. tituluko VII. kapituluak zerga-konsolidazioaren araubidea ezartzen du. 104. artikulua aipatu kapituluaren sartuta dago, eta talde fiskalaren zerga-oinarriaren zehaztapena arautzen du. Zehaztapen horren parte dira taldearen barreneko eragiketengatik egin beharreko eliminazioak.

Zuzenketak jaso nahi du taldeko entitateen arteko partaidetzei loturiko kudeaketa-gastuen kontzeptuan ehuneko 5eko murrizketak ekar dezakeen efektua partaidetza horietatik eratorritako errentei dagokienez, halako moduz non banakako oinarrietan sartu beharrekoa den ehuneko bosta ezein kasutan ez baita eliminatuko.

Zuzenketa honen edukia bat dator zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru lege proiektuari (10-20/LEY-00017) aurkezturiko zuzenketa-multzo honekin:

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari lehenengo apartatu bat gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari bi bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari lau bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluko bederatzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamar bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamaseigarren apartatua gehitzeko zuzenketa.

46. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Zenbaki berria. 107.1. artikulua. Talde fiskalaren zerga-oinarriaren murriztapenak. 2020ko urtarriaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, ezabatu egiten da 107.1. artikulua bigarren paragrafoa.

Zioak: Likidazio-oinarri positiboaren murrizketa mugatzea, aurreko urteetako zerga-oinarri negati-

boak aplikatuta. Gehiegizkoa deritzogu likidazio-oinarri positiboak % 70eraino murrizteari, eta beharrezkoa ikusten dugu enpresen etekinaren gaineko zerga horren bidezko diru-bilketa handitzea.

47. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 107. artikulua 1. apartatua aldatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“107 1. Talde fiskalaren zerga-oinarria likidazio oinarri negatiboak kenduz murrizten ahalko da, 43. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Zerga-taldean sartzen den unean edozein entitatek likidazio oinarri negatiboak konpentsatu gabe baditu, oinarri horiekin taldearen zerga-oinarria murrizten ahalko da, entitatearen zerga-oinarri indibidualaren mugarekin, ken, hala badagokio, 42.1 artikuluko lehenengo eta bigarren atalek aipatzen dituzten murriztapenen zenbatekoa, kontuan harturik entitate horri dagozkion eliminazioak eta inkorporazioak, 104.2 eta 3 artikuluan ezarritakoarekin bat”.

Zioak: Konpentsazioaren xede diren kopuruetan hainbat muga sartu dira, dirua biltzeko helburu hutsarekin. Hala ere, eta Estatuak edo Euskal Autonomia Erkidegoak ez bezala, epe jakin bat aurreikusten jarraitzen da aipatutako 15 urteko likidazio-oinarri negatiboak aplikatu ahal izateko. Horrek eragin dezake enpresa askok beren likidazio-oinarri negatiboak behin betiko galtzea, aurreko ekitaldietan izandako galeren ondorioz, eta hori gaitasun ekonomikoaren printzipioaren aurka doa.

Eta, zehazkiago, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz jarduera eten edo murriztu zaien enpresen likidezia bultzatzeko asmoz, kendu egin dira enpresek aplikatu gabe dituzten zerga-oinarri negatibo guztiak konpentsatzea eragozten duten muga kuantitatiboak eta aldi baterakoak; izan ere, halakoek, egoera honetan, enpresen likidezia erraztu dezakete, bai eta osasun-krisia haien emaitzen kontuan eragiten ari den inpaktua geldiarazi ere.

48. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeari 132.bis artikulua gehitzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“132 bis artikulua. Kuotako kenkariak

Kuotaren kenkariak VI. tituluan aurreikusitako arauak aplikatuz zehaztuko dira. Hala ere, salbuetsitako jardueri soilik egotz dakizkiekeen gastuek eta inbertsioek ez dute kenkarirako eskubiderik emanen, 62. artikuluan aurreikusitakoaren arabera finantzatzen direnean izan ezik; kasu horretan, salbuetsitako jardueri egotz dakizkiekeen gastu eta inbertsioek emanen dute kenkarirako eskubidea. Salbuetsi gabeko jardueri partzialki egotz dakizkiekeen gastuek eta inbertsioek kenkarirako eskubidea emanen dute, salbuetsi gabeko errentak dituzten jarduera ekonomikoetan eta gainerako jardueretan ekitaldian lortutako diru-sarreretik entitatearen guztizko diru-sarreretan egiten duten ehunekoan.

Herri-administrazioetako erakundeek egindako jarduera salbuetsiei soilik egotz dakizkiekeen gastu eta inbertsioek ez dute kenkarirako eskubiderik emanen, inola ere”.

Zioak: Proposatutako idazketarekin ez litzazieke utziko ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzen ikerketaren jarduera salbuetsita duten entitateei, beste entitateei baino baldintza okerragoan jarriz. Hala ere, 62. artikuluan helburua, hain zuzen ere, ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko jarduerak bultzatzea da, I+G+b proiektuen finantzaketan parte hartzearen bitartez.

49. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Sozietateen gaineko Zerga

Indarrak gabe uztea Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarria. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

Zioak: Konpentsazioaren xede diren kopuruetan hainbat muga sartu dira, dirua biltzeko helburu hutsarekin. Hala ere, eta Estatuak edo Euskal

Autonomia Erkidegoak ez bezala, epe jakin bat aurreikusten jarraitzen da aipatutako 15 urteko likidazio-oinarri negatiboak aplikatu ahal izateko. Horrek eragin dezake enpresa askok beren likidazio-oinarri negatiboak behin betiko galtzea, aurreko ekitaldietan izandako galeren ondorioz, eta hori gaitasun ekonomikoaren printzipioaren aurka doa.

Eta, zehazkiago, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz jarduera eten edo murriztu zaien enpresen likidezia bultzatzeko asmoz, kendu egin dira enpresek aplikatu gabe dituzten zerga-oinarri negatibo guztiak konpentsatzea eragozten duten muga kuantitatiboak eta aldi baterakoak; izan ere, halakoek, egoera honetan, enpresen likidezia erraztu dezakete, bai eta osasun-krisia haien emaitzen kontuan eragiten ari den inpaktua geldiarazi ere.

50. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

Bigarren artikuluan hamabost zenbakia kentzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Zioak: Testuak ehuneko 10 handitzen du automobilgintzaren industriako berrikuntza teknologikoko gastuengatik kenkaria 2020. eta 2021. urteetarako. Ez gaude ados, zeren eta handitu behar baita enpresa-etekinen gaineko zerga horren bidezko bilketa.

51. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,
ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluko hamabost apartatua aldatzeko zuzenketa.

Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Hamabost. Hogeita batgarren xedapen gehigarria gehitzea; 2020an eta 2021ean hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“Hogeita batgarren xedapen gehigarria. Kenkaria, automobilgintzaren industriaren balio-kateko ekoizpen-prozesuen berrikuntza teknologikoko jarduerengatik.

1. 2020. eta 2021. urteetan hasten diren zergaldietarako efektuekin, 61.3 artikuluan aipatzen den kenkariaren ehuneko 10 portzentaje-puntu gehituko da berrikuntza teknologikoko jardueretan egindako gastuetarako, baldin eta horien emaitza bada aurrerapen teknologikoa egitea automobilgintza- industriaren balio-kateko ekoizpen-prozesu berrien lorpenean, edo lehendik dauden prozesuetan funtsezko hobekuntzak egitea.

2. Zilegi izanen dute gehikuntza hori aplikatzea enpresa txiki eta ertainzat hartuak diren zergadunek, xedapen honi heldurik: I. eranskina, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 zenbakiko Erregelamendua(EB), zeinaren bidez zenbait laguntza-mota barne-merkatuarekin bateragarritzat deklaritzen baitira, Tratutuko 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

3. Artikulu honetan aurreikusitako gehikuntzari dagokion kenkari-zenbatekoa ezin izanen da 7,5 milioi euro baino handiagoa izan zergadunak garatutako proiektu bakoitzarengatik. Horrez gain, aipatu kenkariaren zenbatekoak, zergadunak jasotako gainontzeko laguntzekin batera, ezin izanen du gainditu diruz lagundu den proiektuaren kostuaren ehuneko 50.

4. Artikulu honetan jasotako gehikuntza aplikatzeko, 61.6 artikuluari jarraikiz eskatutako txostenak zehaztu beharko du berrikuntza teknologikoko jarduerak emaitza gisa duela aurrerapen teknologikoa egitea automobilgintza-industriaren balio-kateko ekoizpen-prozesu berrien lorpenean, edo lehendik dauden prozesuetan funtsezko hobekuntzak egitea”.

Zioak: Hogeita batgarren xedapen gehigarriak, zeinak efektuak baititu 2020an eta 2021ean hasten diren zergaldietan, 10 puntu gehitzen dizkio berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatiko kenkari-portzentajeari, 61.3 artikuluan jasotako ehuneko 15ekoaren aldean, automobilgintza-industriako ekoizpen-prozesuen emaitza denean aurrerapen teknologikoa egitea industria horren balio-kateko ekoizpen-prozesu berrien lorpenean, edo lehendik dauden prozesuetan funtsezko hobekuntzak egitea. Horrela, 2020an eta 2021ean kenkariaren ehuneko %25 izanen da, eta ez %15.

Alabaina, gehikuntza hori egokitu beharra dago Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 zenbakiko Erregelamendua(EB) xedatutakora, zeinaren bidez zenbait laguntza-mota barne-merkatuarekin bateragarritzat deklaritzen baitira, Tratutuko 107. eta 108. artikulua aplikatuz. Izan ere, bereizi egiten ditu enpresa handiak eta enpresa txiki eta ertainak.

Ildo horretan, eta xedapen gehigarri honek aipatzen dituen laguntza-motei dagokienez, enpresa handien kasuan laguntzaren zenbatekoak ezin du ehuneko 15 gainditu. Portzentaje hori jada jasota dago 61.3 artikuluan. Horregatik, xedapen gehigarria aldatzen da, kenkariaren gehikuntzari eutsirik enpresa txiki eta ertainzat bakarrik (aipatu erregelamendua I. eranskinari jarraikiz, zeina ez baitator guztiz bat 26/2016 Foru Legeak jasotzen duen enpresa txikien kalifikazioarekin). Halaber jasotzen da ehuneko 10eko gehikuntzari dagokion kenkariaren gehieneko muga, errespeta-tzearen aipatu Erregelamendua bere 29. artikuluan ezarritakoa; hotx, 7,5 milioi euro proiektuko.

52. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeari hogeita bigarren xedapen gehigarria gehitzea. 2020an hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Ibilgetu materialeko elementu berrien eta higiezinatiko inbertsioen ezohiko amortizazio azeleratuaren araubidea 2020 eta 2021eko zergaldietan.

“Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek 2020an eta 2021ean abiarazitako zergaldietan aplikatu ahal izanen dute 16. artikulua 7. apartatua aurreikusitako amortizazio-araubidea, eta aurreikusitako elementuak amortizatu ahal izanen dira, erregelamendu bidez onartutako amortizazio-tauletan aurreikusitako gehieneko amortizazio-koefizientea bider 1,5 eginda ateratzen den koefizientearen arabera. Enpresa txikien kasuan, amortizatu ahal izanen da, erregelamendu bidez onartutako amortizazio-tauletan aurreikusitako gehieneko amortizazio-koefizientea bider 3 eginda ateratzen den koefizientearen arabera”.

Zioak: Neurri horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren une honetan beharrezkoa den suspertze ekonomikoa bultzatzearen esparruan, sustatu nahi da 2020an eta 2021ean enpresa-jarduerari atxikitako ekoizpen-ondasuntan inbertsio-ahalegina egitea, enpresa deskapitalizatu gabe.

53. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeari hogeita hirugarren xedapen gehigarria gehitzea. 2020an hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Inbertsioetarako erreserba berezia gauzatzeko epea luzatzea.

Lege honen 45.2 artikulua lehen paragrafoan aurreikusitako Inbertsioen Erreserba Berezia gauzatzeko epea urtebetez luzatuko da erreserba hori 2020. urtean hasten den zergaldian hornitzen duten zergadunentzat”.

Zioak: Neurri honen bidez, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren une honetan beharrezkoa den suspertze ekonomikoa bultzatzearen esparruan, sustatu nahi da datozen urteetan enpresa-jarduerari atxikitako ekoizpen-ondasunetan inbertsio-ahalegina egitea 2020. urteko etekinen kargura, enpresa deskapitalizatu gabe.

54. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeari hogeita laugarren xedapen gehigarria gehitzea. 2020an hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“Hogeita laugarren xedapen gehigarria. 2020 eta 2021eko zergaldietan ibilgetu materialeko elementu berrietan inbertsioak egiteagatik kenkari gehigarria.

58.1 artikulua lehen paragrafoan aurreikusitako kenkari-ehuneko % 5 handituko da inbertsioak 2020an eta 2021ean hasitako zergaldietan egiten direnean”.

Zioak: Neurri horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren une honetan beharrezkoa den suspertze ekonomikoa bultzatzearen esparruan, sustatu nahi da 2020an eta 2021ean enpresa-jarduerari atxikitako ekoizpen-ondasunetan inbertsio-ahalegina egitea, enpresa deskapitalizatu gabe.

55. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeari hogeita bosgarren xedapen gehigarria gehitzea. 2020. eta 2021. urteetan hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. Kenkaria, COVID-19ak eragindako osasun-krisiarekin lotutako ikerketako, garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik.

2020an eta 2021ean hasten diren zergaldietarako, 61. artikulua 1. eta 3. apartatuetan aipatzen diren kenkari-ehunekoak 100eko 50 eta 100eko 25 izanen dira, hurrenez hurren, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioak arintzeko jardueren esparruan ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak aurrera eramateko egindako gastuetarako.

Kenkaria aplikatzeko 61.6 artikulua arabera eskatzen den txostenak zehaztu beharko du ikerketako, garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jardura COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioak arintzeko ikerketen esparruan egiten dela.

Foru-agindu bidez garatu ahal izanen dira COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioak arintzeko jarduerak bete behar dituzten baldintzak”.

Zioak: Helburua da COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioak arintzeko jarduerak sustatzea, normaltasunera ahalik eta azkarren itzultzeko.

56. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeari hogeita seigarren xedapen gehigarria gehitzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hogeita seigarren xedapen gehigarria. Enpresen ekarpenengatik kenkaria

1. 51,1 b) artikuluan araututako zerga-tasa aplikatzen zaien sozietateen gaineko zergaren zergadunek langileentzat emandako enpresa-kon-

tribuzioen 100eko 20 kentzen ahalko dute kuota likidotik, langile horiei urteko 40.000 euro baino gutxiagoko lansari gordinak ematen badizkiete eta kontribuzio horiek egiten badira enplegu pentsio planetarako, enpresako gizarte-aurreikuspeneko planetarako, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak enpleguko pentsio-funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruz 2016ko abenduaren 14an emandako 2016/2341 Zuzentarauan araututako planetarako, edo gizarte-aurreikuspeneko mutualitateetarako, azken horiek enpresaren gizarte-aurreikuspeneko tresna gisa jarduten dutenean eta zergaduna haien sustatzailea denean. Kenkaria izateko eskubidea emanen dute, halaber, pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginean (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoan) jasotzen diren pentsio planen estalduren baliokideak diren horietarako enpresek egiten dituzten kontribuzioek, bai eta pentsio sortuek ere, baldin eta aipatu testu bateginean xedatutako moduan gauzatu badira.

2. Langileen urteko lansari gordina 40.000 eurotik gorakoa baldin bada, 1. zenbakietan aurreikusitako kenkaria proportzioan aplikatuko dira, hau da, enpresak 40.000 eurorentzat egindako enpresa-kontribuzio eta -ekarpenei dagokien zati proportzionalean”.

Zioak: Enpleguko pentsio-planak bultzatzeko, enpresek egiten duten ekarpenaren —langileen PFEZean murrizgarria denaren— mugak handitzeaz gain (lehen proposatutako zuzenketa), oso komenigarritzat jotzen da plan horiek ETEetan lehenestea, horiek izaten baitute arazo gehien enplegu-plan horiek hornitzeko orduan. Horretarako, sozietateen gaineko zergan kenkari bat ezartzen da planei ematen dieten zenbatekoaren gainean, batez ere soldata ertain eta txikietarako (40.000 eurotik beherakoak).

57. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeari hogeita zazpigarren xedapen gehigarria gehitzea. 2020an hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Dohaintzengatiko kenkaria COVID-19aren testuinguruan.

1. Mediku-ikerketetan parte hartzen duten edo COVID-19ak eragindako osasun-krisiari amaiera ematen jarduten duten entitateei edo erakundeei dohaintzak egiten bazaizkie, dohaintza horien zenbatekoaren 100eko 30eko kuota likidoa kentzeko eskubidea izanen da.

2. Kenkariaren oinarria honako hau izanen da:

a) Diruzko dohaintzetan, haien zenbatekoa.

b) Ondasun edo eskubideen dohaintzetan, eskualdaketa egiten den unean daukaten kontabilitate-balioa eta, halakorik ezean, ondarearen gaineko zergaren arauekin bat zehaztutako balioa.

3. Aurreko letran xedatutakoari jarraikiz zehaztutako balioaren gehieneko muga izanen da eskualdatutako ondasunak edo eskubideak eskualdaketa unean merkatuan duen balio arrunta.

4. Kenkari gisa aplikatu ez diren zergaldiko zenbatekoak ondorengo 10 urteetan eta hurrengoetan amaitzen diren zergaldietako kitapenetan aplikatu ahal izanen dira.

5. Kenkari honen oinarria ezin izanen da izan zergaldiko zerga-oinarriaren 100eko 10 baino handiagoa. Muga hori gainditzen duten zenbatekoak hurrengo 10 urteetan eta hurrengoetan amaitzen diren zergaldietan aplikatu ahal izanen dira.

6. Nafarroako Gobernuak zehaztuko zein diren ikerketa medikoetan parte hartzen duten edo COVID-19ak eragindako osasun-krisiari amaiera ematen diharduten entitateak edo erakundeak. Kenkari hori erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan justifikatu beharko da”.

Zioak: ikerketa medikoetan parte hartzen duten edo COVID-19ak eragindako osasun-krisia arintzen diharduten entitate edo erakunde mota horiei dohaintzak eman dakizkien sustatu nahi da. Lurralde erkidean, dohaintzengatiko kenkaria % 5 handitu da.

58. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamaseigarren apartatua gehitzeko zuzenketa.

Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Hamasei. Hogeita bederatzigarren xedapen iragankorra gehitzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“Hogeita bederatzigarren xedapen iragankorra. 20 milioi euro baino gehiagoko eskuratze-balioa duten partaidetzen zergapetze-araubidea.

2021eko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldietan eskuratutako partaidetzek, 20 milioi euro baino gehiagoko eskuratze-balioa baldin badute, baina 35.1.a) artikuluko lehen paragrafoan edo 57.1.a) artikuluan ezarritako portzentajera iritsi gabe, 35. edo 57. artikuluan ezarritako araubide fiskala aplikatuko dute, kasuaren arabera, baldin eta haietan aurreikusitako gainerako betekizunak betetzen badituzte 2021, 2022, 2023, 2024 eta 2025. urteen barrenean has- ten diren zergaldietan zehar”.

Zioak: Araubide iragankor bat ezartzen da, halako moldez non, datozen bost urteetan, eskuratze-balioagatik (20 milioi euro baino gehiagokoa) adierazgarri diren baina kapitalaren edo funts berekien ehuneko 5 baino gutxiago ordezkatzen duten partaidetzek zilegi izanen baitute aplikatzea dibidendu eta gainbalioen salbuespena, 35. artikulukoa; edo, kasua bada, dibidenduen zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria, 57. artikulukoa.

Zuzenketa honen edukia bat dator zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru lege proiektuari (10-20/LEY-00017) aurkezturiko zuzenketa-multzo honekin:

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari lehenengo apartatu bat gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari bi bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari lau bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluko bederatzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamar bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

- Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamaika bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

59. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren hirugarren artikuluko hamar apartatua aldatzeko zuzenketa.

Hirugarren artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

Hamargarren apartatuak 116.4 artikulua aldatzen du. Zuzenketak aldatu egiten du azken paragrafoa, eta gainerakoa proiektuan dagoen bezala uzten du.

“Konkurtsodeklarazioak ez du etenik eraginen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitako Konkurtso Legearen testu bateginaren arabera konkurtsokalifikazioa duten zorrak ordaintzeko borondatezko epean, horrek ezertan galarazi gabe epe exekutiboko jarduketak testu bategin horretan xedatutakoari jarraitzea”.

Zioak: Zuzendu egiten da Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen erreferentzia, eta horren ordeztu aipatzen da maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitako Konkurtso Legearen testu bategina.

60. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren hirugarren artikuluari hamar bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

Hirugarren artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra

Hamar bis. 117.1 artikulua, hirugarren paragrafoa, eta 2, 3 eta 4. apartatuak, 2021eko martxoaren 1etik aurrera ordaintzen diren zorretarako efektuekin.

“Errekargu horiek elkarrekin bateraezinak dira, eta borondatezko epean ordaindu ez den zorraren osotasunaren gainean kalkulatzeko dira.

2. Errekargu exekutiboa 100eko 5ekoa izanen da, eta aplikatuko da borondatezko epean ordaindu gabeko zor guztia premiamendu-probidentzia jakinarazi aurretik ordaintzen denean.

3. Premiamendu-errekargu murriztua 100eko 10ekoa izanen da, eta aplikatuko da noiz eta borondatezko epean ordaindu gabeko zor guztia eta errekargua bera ordaintzen direnean premiamendu-prozedura abiarazi duten zorren ordaintzari begira erregelamenduz ezarritako epea amaitu aurretik.

4. Premiamendu-errekargu arrunta 100eko 20koa izanen da, eta aplikatuko da artikuluko 2. eta 3. apartatuetan adierazitako inguruabarrak gertatzen ez direnean”.

Zioak: Halatan, gure inguruetakoa araudiek ezarritakoari hurbiltzen zaie exekuzio-aldiko errekar-guen zehaztapena, eta horiek likidatzeko kalkuluak sinplifikatzen dira.

61. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren hirugarren artikuluko hamaseigarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

Hirugarren artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

Hamasei. Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatzeko 2021ean egiten diren eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak.

Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatzeko 2021ean egiten diren eskaerei, baldin eta horren diru-bilketa kudeatzeko lana tributuen arloan eskumena duen departamentuari badagokio, honako xedapen berariazko hauek aplikatuko zaizkie:

Lehena. Geroratzetan ez da bermerik eskatuko baldin eta zorraren zenbatekoa, guztira, uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduaren 51.1.b) artiku-

luan ezarritakoa baino txikiagoa bada, betiere zerga edo geroratu beharreko zorrari dagokion kontzeptua ez badago aipatutako Erregelamenduaren 48.3 artikuluan adierazitako salbuespenen artean, maiztasuna hilerokoa bada, epea ez bada bi urte baino handiagoa, eta eskatzaileak geroratzeko eskatutako zorraren 100eko 30 ordaintzen badu tramitatu aurretik.

Bigarrena. Bai borondatezko epean bai ordainarazpen aldiaren egindako geroratzeko edo zatikatzeko eskaeretan, betiere geroratu edo zatikatu beharreko zenbatekoa 6.000 eurotik beherakoa bada, geroratzeko edo zatikatzeko epea hamabi hilekoa gehienez, eta maiztasuna hilerokoa, ez da bermerik eskatuko, ez eta ordainketa tramitazioaren aurretik egin beharra ere.

Hirugarrena. Premiamendu bidez geroratu edo zatikatu beharreko zorren artean baldin badaude bide horretan berean lehenago geroratu edo zatikatzeko zorrak, kitatuta daudenak, zor horien saldoaren 100eko 30, arestian aipatutako lehen xedapenean aipatzen dena, ordaintzeko eskatuko da, bai eta bete gabeko geroratzeko edo zatikatzeko kontuan hartu ziren zorrei dagozkien ordainarazpen aldiko errekarguak eta interesak ere, osorik, horiek ordaintzeko beharra atzeratu egin baitzen geroratzeko onartu zenean, 117.3 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Zenbateko horiek exijituko dira, halaber, bermea eratzeko beharra dakarten geroratzeko edo zatikatzeko, Diru-bilketaren Erregelamenduaren 50. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Geroratu edo zatikatzeko eskaeran sartutako gainerako zorretarako, baldin badago, aurreko lehen eta bigarren xedapenetan ezarritakoa aplikatuko da.

Laugarrena. Borondatezko epeko zorren kasuan, geroratzeko edo zatikatzeko eskaera automatikoki ezetsiko da baldin eta erabat kitatu gabe badaude lau tributu-zor edo gehiago edo Nafarroako Zerga Ogasun Publikoaren bestelako eskubide ekonomiko batzuen hiru sarrera edo gehiago, salbu eta geroratzeko eskatutako zergak bermatzen badira edo aurrekoak bermatuta badaude, soil-soilik aipatutako Diru-bilketa Erregelamenduaren 50.1 eta 50.2.a) artikuluetan adierazitako berme motekin bermatuta egon ere”.

Zioak: 2021. urterako ere jarraipena ematen zaie zerga-zorra geroratu edo zatikatzeko eskaerei aplikatzekoak zaizkien berariazko neurriei, zeinak indarrean egon baitziren 2017, 2018, 2019 eta 2020. urteetan; baina, gainera, kitatzeko dauden geroratzeko kopurua, 4. xedapen berariazkoan

aurreikusitako uko automatikoaren kausa gisa hartua, 3tik 4 edo gehiagora igotzen da.

62. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrari hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria gehitzea. Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatzeko 2021ean egiten diren eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak.

2021ean egiten diren tributu zorra geroratzeko edo zatikatzeko eskaerei, betiere dirua biltzeko kudeaketa-lana Ekonomia eta Ogasun Departamentuari badagokio, honako xedapen berariazko hauek aplikatuko zaizkie:

1. Geroratu beharreko zorraren zenbatekoa, guztira, uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren 51.1.b) artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa denean, ez da bermerik eskatuko, betiere geroratu beharreko zorrari dagokion zerga edo kontzeptua ez badago sarturik aipatutako erregelamenduaren 48.3 artikuluan adierazitako salbuespenetan, gerorapenak hilabeteko maiztasuna badu eta ondoko bi inguruabarretako batean badago:

a) epea lau urtetik gorakoa ez izatea eta eskaiztaileak izapidetu aurretik sartzea geroratzeko eskatutako zorraren 100eko 20.

b) epea hiru urtetik gorakoa ez izatea eta eskaiztaileak izapidetu aurretik sartzea geroratzeko eskatutako zorraren 100eko 10.

Bi kasuetan, eta zergadunaren egoera ekonomiko berezia baloratu ondoren, gehienez ere sei hilabeteko gabeziak eman ahal izanen dira. Gabealdia ez da zenbatuko geroratzeko epearen barruan.

2. Bai borondatezko epean bai ordainarazpenaldian egindako geroratzeko edo zatikatzeko eskaeretan, betiere geroratu edo zatikatu beharreko zenbatekoa 15.000 eurotik beherakoa bada, 18 hilabete arteko geroratzeko edo zatikatzeko maiztasuna izanik, ez da bermerik eskatuko, ezta tramitatu aurretik egin beharreko dagokion ordainketa egitea ere. Zergadunaren egoera ekonomiko berezia baloratu ondoren, gehienez ere sei hilabeteko gabeziak eman ahal izanen dira. Gabealdia ez da zenbatuko geroratzeko epearen barruan.

3. Borondatezko epeko zorren kasuan, geroratzeko edo zatikatzeko eskaera automatikoki ezetsiko da baldin eta erabat kitatu gabe badaude lau tributu-zor edo gehiago edo Nafarroako Zerga Ogasun Publikoaren bestelako eskubide ekonomiko batzuen hiru sarrera edo gehiago, salbu eta geroratzeko eskatutako zergak bermatzen badira edo aurrekoak bermatuta badaude, soil-soilik aipatutako Diru-bilketa Erregelamenduaren 50.1 eta 50.2.a) artikuluetan adierazitako berme motekin bermatuta egon ere”.

Zioak: Egungo krisialdian, eta enpresa askorentzat, bereziki enpresa txiki eta ertainentzat, ekar dezakeena ikusita, 2021eko ekitaldian, likidezia-arazoak dituzten enpresa txiki eta ertainei geroratzeko erregimen malguagoa eman nahi zaie, bermerik eman gabe eta epe luzeagoekin, eta gabeziak izateko aukerarekin. Neurri horiek funtsezkotzat jotzen dira datorren urtean enpresa txikien eta autonomoen kolapsoak saihestu nahi badira. Likidezia-arazoaren ondorioz, Estatu mailan erregulatu egin da ICOren maileguen epea eta gabealdia, bai eta konkurtsoa aurkezteko epea ere.

63. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuari zazpigarren artikulua gehitzeko zuzenketa.

Zazpigarren artikulua. Saltoki handien gaineko zerga.

Abenduaren 27ko 30/2018 Foru Legeko hamaikagarren artikuluko zazpi b) apartatuaren azken paragrafoak honako testu hau izanen du:

“Kontzeptu hori murriztuta kontatuko da, 2.000 metroko azaleraren eta produktuak saldu eta erakusteko azalera erabilgarriaren artean dagoen aldearen proportzioan. Azkenik, 0,9rekin biderkatuko da”.

Zioak: Saltoki handien gaineko zergako zazpigarren apartatuak zerga-oinarriaren zehaztapena arautzen du, haren osagaiak eta osagai horiek kuantifikatzeko modua ezarriz.

Zehazki, b) letrak arautzen du zerga-oinarriaren parte izanen den aparkaleku-azalerari dagokion oro, eta azalera hori zehazteko arauak jasotzen ditu.

Azken paragrafoak azalera-murrizketa bat ezartzen du, zeina suertatuko baita b) letra honetan adierazitako arauak aplikatuz; eta paragrafo horretako azken aipamenak amaierako murrizketa bat gehitzen du, testu honekin: “Azkenik, 0,9ko murrizketa-koefizientea aplikatuko da”. Horrek esan nahi du zenbateko hori ehuneko 10 murriztuko dela.

Koefiziente horren aplikazioari buruzko kontsultak egin izan direnez, ulertzeagatik suertaturiko azalera ehuneko 90 murrizten zela eta hori ez zela inola ere bilatzen zena, zuzenketa honek azken aipamen hori aldatzen du, horren aplikazioa argitzearren. Testua aldatzen da, ez dadin inolako egon suertaturiko azalera 0,9rekin biderkatu behar izateaz (zeinak azken batean esan nahi baitu murrizketa ehuneko 10ekoa dela).

64. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Kostu bidezko ondare eskualdaketen eta egin-tza juridiko dokumentatuen gaineko zerga

Ondare eskualdaketen eta egin-tza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenen Testu Bateginaren 4. artikulua 1. zenbakia aldatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“1 Aurreko artikuluan zerrendatutako eragiketak ez dira titulu honetan araututako kostu bidezko ondare eskualdaketak izanen, enpresaburu edo profesional batek bere enpresa edo lanbide jardueran gauzatu badu ondasun entrega edo zerbitzu egitea eta, edozein kasutan, balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu behar duten ondasun entregak edo zerbitzu egiteak badira. Hala ere, zerga kontzeptu horrengatik ordaindu beharko dute ondasun higiezinaren entregek edo errentamenduek, baita horien gaineko erabiltze eta lupertze eskubide errealek eraketak edo eskualdaketak ere, baldin eta eragiketa horiek balio erantsiaren zergatik salbuesita badaude, salbu subjektu pasiboak salbuespen horri uko egiten badio Zergaren Foru Legean jasotako inguruabar eta baldintzekin; enpresa edo lanbide ondarearen parte diren elementu gorpuzdunen edo, kasua bada, gorpuzgabeen multzo baten eskualdaketen sartzen diren higiezinaren entregek ere ordaindu behar dute, baldin eta elementu horiek berez enpresa edo lanbide jarduerara bat garatzeko gauza den unitate ekonomiko autonomo bat osatzen badute, betiere bere inguruabarrengatik ondare horren eskualda-

ketak balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu behar ez badu”.

Zioak: Sozietateen gaineko Zergan aurrez proposatutako zuzenketarekin (4. zk.) bat etorritik, ekoizpen-unitateak lehiaketan eskuratzeari dagokionez, beharrezkoa da OEEJDZren kostu bidezko ondare-eskualdaketen modalitatean zergapetuta ez egotea konkurtso-prozeduretan eskuratutako ekoizpen-unitateetan sartutako higiezinak eskuratzegatik. Neurri hori Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako OEEJDZren foru-arauetan aurreikusita dago.

65. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Ondarearen gaineko Zerga

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko 5.8. Hiru artikulua aldatzea. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina:

“Ez dira jarduera ekonomiko bat garatzeko beharrezkoak ez diren aktibo gisa zenbatuko, eskurapen-prezioa entitateek lorturiko mozkin banatu gabeen zenbatekoa baino txikiagoa dutenak, baldin eta etekin horiek jarduera enpresarial edo profesionalen ondoriozkoak badira; horretarako muga izanen da bai urte berean bai aurreko azken hamar urteetan lorturiko etekinen zenbatekoa. Paragrafo honetan xedatutakoa aplikatzeagatik beharrezkoak ez diren aktibo gisa zenbatzen ez diren elementuek ezin izanen dute aktibo osoaren % 75 gainditu.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, enpresa- edo lanbide-jardueretatik etorritako etekintzat hartuko dira aurreko Bi A) apartatua 1) letran aipatutako baloreetatik heldu diren dibidenduak, bai eta partaidetza horren eskualdatzeetan lortutako plusbalioak ere, baldin eta parte hartutako entitateak lortutako diru-sarreraren ehuneko 90, gutxienez, enpresa- edo lanbide-jarduerak egitetik heldu badira”.

Zioak: 4.1. artikulua aldatzen da. Aldatu egiten da 5.8 Hiru artikulua, arautu nahi baita ezen, partaidetza jakin batzuen salbuespena aplikatzearen ondorioetarako, honako hauek ez direla jarduerarako beharrezkoak ez diren aktibo gisa zenbatuko: erosketa-balioak entitateak lortu dituen eta banatu ez diren etekinen zenbatekoa gainditzeko ez duen kasuak, betiere etekin horiek heldu badira enpresa edo lanbide jardueretatik; betiere, horretarako muga izanen dira bai urte berean bai

aurreko 10 urteetan lorturiko etekinen zenbatekoak. Muga hori aplikatzeagatik beharrezkoak ez diren aktibo gisa zenbatzen ez diren elementuek ezin izanen dute aktibo osoaren % 75 gainditu.

Neurri horren bidez, familia-enpresak atxiki eta berreskuratu nahi dira; izan ere, hori egitea funtsezkoa da ekonomiarentzat, zeina haiek erroztzearen eta sortzen duten inbertsioaren mende baitago. Neurriak eragina izanen du, batez ere, azken hamar urteetan irabaziak izan dituzten konpainia saneatuetan. Hain zuzen ere, azken hamarkadan dibidenduak banatzeari uko egin dioten konpainien mozkinak pilatutako kapitalaren tratamendua hobetzea da helburua, halako moduz non ez den zigortuko familia-enpresen enpresa-jarduerak sortutako aurrezpena.

COVID-19ak eragindako krisiarekin, garrantzitsua da gure enpresen kapitalizazioa sustatzea, horrela hobeto erantzuten baitiote gaur egun bizi dugun egoerari.

Neurri hori Gipuzkoako zerga-neurrien aurreproiektuan aurreikusita dago, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

66. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruzko xedapenen Testu Bategineko 11.c artikularen a') letra kentzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Zioak: Arauaren egungo idazketarekin, baldintza da, Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan jasotakoan ez bezala, kausatzaileak bere heriotzaren dataren aurreko 5 urteetan partaidentzak eduki izana familia-enpresa gisa ezagutzen den horretan, enpresa-partaidentzek salbuespena eskuratu ahal izateko. Ez da oso ongi ulertzen 5 urteko epean aldeztu aurretik edukitzeko eskakizun hori, baldintza horren hitzez hitzeko edukia kontuan hartuta gerta daitezkeen egoera zentzugabe eta nahi gabeko batzuk kontuan hartuta; adibidez, seme-alabak dituen bikote batek salbuespena aplikatzeko eskubidea badu ezkontideetako bat hiltzen den unean, eta superstitea bada partaidentzak edo negozioa jasotzen dituen, baldin eta azken hori lehenengo kausatzailea hil eta bost urte iragan baino lehen hiltzen bada, ezkontide horien seme-alabek ezin izanen dute aplikatu aitak edo amak herentzian jasotako partaidentzengatik salbuespena, ezkontidearen herio-

tzagatik aplika daitekeena, 5 urteko epe hori igaro ez delako. Hala ere, araua hitzez hitz hartuta, seme-alabek, lehenik eta behin, bi kasuetan jaraunseak izatearen salbuespena aplika zezaketen. Gauza bera Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruzko xedapenen Testu Bategineko 11.c) artikuluan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko eskubidea duen pertsona baten kasuan, zeinak hil baino 5 urte lehenago enpresa horretan bertan kapital-gehikuntza sinatzen baitu. Araua hitzez hitz hartuta, ezin izanen litzateke kapital-gehikuntzan jasotako partaidentza horien mortis causa eskualdaketagatik salbuespena aplikatu. Zentzugabea izanen litzateke, halaber, enpresa-jarduera bat hasi eta hurrengo 5 urteetan hiltzen den pertsona baten kasua, zeren eta haren ezkontideak edo seme-alabek ez bailukete salbuespena aplikatzeko eskubiderik izanen, araua hitzez hitz hartuta. Gure ustez, egoera horiek edo arauaren hitzez hitzeko edukiarekin gaur egun gerta daitezkeen beste batzuk ez datoz bat familia-enpresaren "mortis causa" eskualdaketarako aurreikusitako salbuespenaren helburuarekin; izan ere, halakoetan oinordetza erraztu beharko litzateke.

67. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruzko xedapenen Testu Bategineko 11.c artikularen b') letra aldatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"b') Eskuraketa kausatzailea hil eta hurrengo bost urteetan mantentzea, salbu eta eskuratzailea epe horren barruan hiltzen bada edo enpresa edo erakundea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzen bada".

Zioak: Gaur egun, ez da mantentze-betebeharraren salbuespen gisa hartzen herentzian eskuratutako negozioa edo sozietatea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzeko aukera, eta, beraz, kasu horretan uler liteke eskurapena salbuesteko betekizunen ez-betetze bat gertatu dela. Egoera hori mantentze-betebeharraren salbuespen gisa aurreikusi behar da. Are gehiago, COVID-19aren ondorioz gaur egun bizi dugun krisi sanitarioaren ondoren aurreikusitako krisi ekonomikoaren gaur egungo testuinguruan, zeinak, tamalez, konkurtso-prozedura ugari sortuko baititu enpresa-eremuan.

68. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruzko xedapenen Testu Bategineko 34, 1, a), 1.a eta 2.a artikulua aldatzea eta 3. eta 4. zenbakiak indarrak gabe uztea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“a) 1.a Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, beren legeria espezifikoaren arabera, aurreko edo ondorengo zuzenak, odol bidezkoak, adoptatzaileak edo adoptatuak, herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza-tituluren bidezko “mortis causa” eskuraketak direnean, bai eta biziaren gaineko aseguru kontratuen onuradunek jasotako zenbatekoak direnean, 8. c) artikuluan aipatzen direnak.

Karga-tasak:

– 400.000 eurorainoko likidazio-oinarria: Ehuneko 0.

– Oinarriaren soberakina: Ehuneko 0,80.

2.a Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, beren legeria espezifikoaren arabera, aurreko edo ondorengo zuzenak, odol bidezkoak, adoptatzaileak edo adoptatuak, dohaintza bidezko edo doako eta beste edozein negozio juridikoaren bidezko “inter vivos” eskurapenak direnean, bai eta biziaren gaineko aseguru kontratuen onuradunek jasotako zenbatekoak direnean, 8. artikulua d) eta e) letretan aipatzen direnak.

Karga-tasak: Ehuneko 0,8”.

Zioak: Zuzenketaren bidez, Nafarroan oinordetzen eta dohaintzen fiskalitatea berreskuratu nahi da; izan ere, Nafarroan, tradizionalki, aurreko eta ondorengo ahaideen arteko translazioek guraso eta seme-alaben arteko transmisioaren araberako tributazioa izan dute, familientzako babes gisa. Gainera, gure ingurune hurbileneko –Euskal Autonomia Erkidegoa eta erkidego mugakideak— fiskalitateara egokitzen da, gertatu diren ondareen deslokalizazio-egoerak saihestuz; izan ere, horien azken emaitza izan da Nafarroarentzat diru-bilketaren galera gertatzea.

Azkenik, oinordetzen kasuan, herentzia txikienezko salbuespena ezartzen da, egungoa baino handiagoa, zerga progresiboagoa eginez.

69. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuari bosgarren xedapen gehigarria gehitzea. Zerga-tarifen deflaktazioa. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak

2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, % 1,5eko zenbatekoan deflaktatuta geratuko dira ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 59. eta 60. artikuluetan ezarritako zerga-tarifak.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, % 1,5eko zenbatekoan deflaktatuta geratuko dira ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 59. eta 60. artikuluetan 2021. urterako ezarritako zerga-tarifak.

Zioak: % 1,5eko deflaktazioa proposatzen da zergaren 2021erako tarifa orokor eta berezietarako, eta portzentaje bereko (% 1,5) deflaktazio gehigarri eta metatua 2022rako. Deflaktazio horren helburua da tarifak aurreko urteetan metatutako inflaziora egokitzea, iaz % 2ko deflaktazioarekin hasi zen bidearekin jarraituz. Pixkanaka egiten du, zergadunak saihesteko, batez ere langileak, inflazioaren ondorio hutsagatik.

70. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari seigarren xedapen gehigarria gehitzea. Berandutzaren interes-tasa 2021. urterako.

“Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 50.2.c) artikuluan aipatzen den berandutzaren interes-tasa urtean 100eko 1 izanen da 2021etik aurrera”.

Zioak: Arestian azaldutako arrazoi berberengatik, eta krisiaren ondorioak arintzeko, likidezia hobetzeko eta merkatuko tasetara egokitzeko, funtsezkotzat jotzen da berandutzako interes-tasa % 1era jaistea 2021. urtean. Gogora dezagun neurri horrek Ogasunak zergadunekin dituen kre-

dituei eta zorrei eragiten diela, eta horrek eragin negatiboak eta positiboak izanen dituela diru-bilketan.

71. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari zazpigarren xedapen gehigarria gehitzea. Zergak itzultzeko epeak 2021. urterako.

“2021. urtean, hiru hilabeteko gehieneko epean eginen dira balio erantsiaren gaineko zergaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren zergadunei dagozkien itzulketak”.

Zioak: Likidezia hobetzeko beste neurri egoki bat da, batez ere ETEen, autonomoen, ekin-tzaileen, inbertsio berrien eta esportatzaileen eremuan. Horrela, sei hilabeteko gehieneko epea, egoera arruntetarako arautua, erdira jaisten da salbuespenezko egoeretan.

72. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk ezartzen dituen Foru Legearen proiektuaren azken xedapenetako bigarrena aldatzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, onesten duena Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina.

239.1 artikulua aldatzea uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuari, zeinaren bidez onesten baita Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina.

Hiru. 239.1 artikulua:

“1 Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek, erakunde publikoek, ente instrumentalek eta sozietate publikoek azalera-eskubidea eratzten ahal dute beren jabetzakoak diren lurretan edo lurzorua ondatzeko publikoa osatzen dutenetan, babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzak eraikitzeko edo gizarte intereseko beste erabilera batzuetarako. Eskubide hori azalera-hartzailearena izanen da”.

Zioak: Azalera-eskubidea eratzeko modua izan dezaten, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ez ezik, toki entitateek eta sozietate publikoek ere.

Foru Lege proiektua, Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2020ko azaroaren 16ko 126. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren hamaikagarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

«Hamaika. 140. artikulua, 4. eta 5. apartatuak gehitzea.

"4 Ordenantza fiskalek arautzen ahalko dute zergaren kuotaren ehuneko 90erainoko hobari bat, kasuan kasuko etxebizitza familia ugariaren edo familia guraso bakarrekoaren edo gurasobakartasun egoeran dagoen familiaren titularrak diren subjektu pasiboen ohiko bizilekua denean. Hobari hori osorik aplikatuko da subjektu pasiboak zergaldian 30.000 eurotik gorako errentarik ez duenean, salbuetsitakoak alde batera utzita; kopuru horretatik aurrera, hobariaren ehuneko hamabost puntu murriztuko da errentako 5.000 euro gehiago bakoitzeko, eta ez zaie aplikatuko 55.000 eurotik gorako errenta duten subjektu pasiboei.

Hobari hau aplikatzeko, beharrezkoa izanen da udalerriko balorazio txosten osoaren onespina edo azken berrikuspina aurreko bost urteko epean egina izatea, gehienez ere.

Hobariaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalaren bidez arautuko dira.

5. Orobat, ordenantza fiskalek arautzen ahalko dute ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota osoaren 100eko 50erainoko hobaria, higiezinaren eguzki energia edo beste energia berriztagarri bartzuen bidezko aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak ezarri direnean. Hobari hori osorik aplikatuko da subjektu pasiboak zergaldian

30.000 eurotik gorako errentarik ez duenean, salbuetsitakoak alde batera utzita; kopuru horretatik aurrera, hobariaren ehuneko bost puntu murriztuko da errentako 5.000 euro gehiago bakoitzeko, eta ez zaie aplikatuko 55.000 eurotik gorako errenta duten subjektu pasiboei.

Hobari horren aplikaziorako, beharrezkoa izanen da beroa sortzeko instalazioetan administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak egotea.

Hobariaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalaren bidez arautuko dira"».

Zioak: Foru lege proiektuan ezartzen diren hobariak bereizi gabeak dira, ez dute kontuan hartzen onuradunen gaitasun ekonomikoa, eta proportzionaltasun irizpide guztiak ahaztu dira hura ezartzerakoan. Gure ustez, edozein subjektu pasibok ez luke hobari horien onuradun izan behar; aitzitik, eskala bat eta errenta-muga bat finkatzeko errenta hartu beharko litzateke kontuan, eta errenta-muga horretatik aurrera ez litzateke, inola ere, deskontu hori zergan aplikatu beharko.

2. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Testuaren artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa.

Hamaika. 140. artikulua, 4. eta 5. apartatuak gehitzea.

Honako hau dioten tokian: "4 Ordenantza fiskalek arautzen ahalko dute zergaren kuotaren ehuneko 90erainoko hobari bat, kasuan kasuko etxebizitza familia ugariaren edo familia guraso bakarrekoaren edo gurasobakartasun egoeran dagoen familiaren titularrak diren subjektu pasiboen ohiko bizilekua denean.

Hobari hau aplikatzeko, beharrezkoa izanen da udalerriko balorazio txosten osoaren onespina edo azken berrikuspina aurreko bost urteko epean egina izatea, gehienez ere.

Hobariaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalaren bidez arautuko dira"».

Proposatzen den testua

Hamaika. 140. artikulua, 4. eta 5. apartatuak gehitzea.

"4 Ordenantza fiskalek arautzen ahalko dute zergaren kuotaren ehuneko 90erainoko hobari bat, kasuan kasuko etxebizitza familia ugariaren edo familia guraso bakarrekoaren edo gurasobakartasun egoeran dagoen familiaren titularrak diren subjektu pasiboen ohiko bizilekua denean.

Hobariaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalaren bidez arautuko dira".

Zioak: Irizpide bera aplikatu behar zaie herritar guztiei, edozein udalerritakoak direla ere eta udalerrri guztizko balorazio-txostena onetsi duen edo azken berrikuspena egin duen kontuan hartu gabe; horrela, konparaziozko bidegabekeriak saihestuko dira, toki-erakundeen jardueren arabera, eta, batez ere, berdintasun-printzipioa lehenetsiko da.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa.

140. artikulua 4. apartatuaren hamaikagarren puntua aldatzeko zuzenketa.

Hamaika. 140. artikulua, 4. eta 5. apartatuak gehitzea.

"4 Ordenantza fiskalek arautzen ahalko dute zergaren kuotaren 100eko 90erainoko hobari bat, kasuan kasuko etxebizitza familia ugariaren edo familia guraso bakarrekoaren edo gurasobakartasun egoeran dagoen familiaren titularrak diren subjektu pasiboen, errenta bermatuaren jasotzaileen, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren jasotzaileen edo kotizazio gabeko pentsioen jasotzaileen ohiko bizilekua denean.

Hobari hau aplikatzeko, beharrezkoa izanen da udalerriko balorazio txosten osoaren onespina edo azken berrikuspena aurreko bost urteko epean egina izatea, gehienez ere.

Hobariaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalaren bidez arautuko dira".

Zioak: Udalen aukerako ahalmen horretan sartzen ditugu argi eta garbi egoera ahulean dauden biztanleria-sektoreak.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

213. artikuluko 4. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

"213. artikulua.

4. Salbuespen gisa, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onetsi arte, aurreko ekitaldian erabili gabeko baliabideekin finantzatzen ahalko dira gastu berriei edo handiagoei erantzuteko behar diren aldaketak. Nahitaezkoa izanen da kontu-hartzaitzaren txostena egiazko finantzaketa erabilgarriari buruz".

Zioak: Hasieran proposatutako 213.4 artikulua- ren aldaketak malgutu egiten zuen aparte kredituen edo kreditu-gehiagarrien bidez aurrekontu-aldaketak finantzatzeko baliabide atxikiak eta finantzaketa atxikia erabiltzea. Aurrekontu-aldaketa berberak egiteko aukera gehitzea proposatzen dugu, atxiki gabeko baliabideekin. Horiek, itxiera- unean, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinean sartuko dira, betiere baliabide horien benetako erabilgarritasunari buruzko kontu-hartzaitzaren txostenarekin.

5. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

219. artikuluan apartatu berri bat, 6.a, gehitzeko zuzenketa.

"6 Salbuespen gisa, eta aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onartu arte, artikulua honetako 1. apartatuan deskribatutako erabili gabeko kredituak txertatu ahal izanen dira, besteak beste, aurreko ekitaldian erabili gabeko baliabideekin finantzatuta. Nahitaezkoa izanen da kontu-hartzaitzaren txostena egiazko kreditua egoteari buruz eta finantzaketa erabilgarriari buruz".

Zioak: 219. artikulua ekitaldia amaitzean gastatu ez diren kredituak txertatzeari dagokionez, aurrekontuaren likidazioa onartu baino lehen eta

salbuespen gisa, gastatu ez diren kreditu txertagarri guztiak txertatzeko aukera proposatzen da, eta ez soilik atxikitako diru-sarrerak dituzten gastu-proiektuetatik datozenak. Horretarako, finantzaketa egokia izan beharko dute, aurreko ekitaldiari atxikita ez dauden baliabideetatik etor daitekeena, ekitaldian zehar lor daitekeen beste finantzaketa bati kalterik egin gabe. Toki-erakundeko kontu-hartzaitzak nahitaez eman beharko du alderdi horien guztien berri.

6. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

«Lehenengo xedapen gehigarria. Toki entitateentzako konpentsazioak, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren eraginez sarrerak galtzeagatik.

Toki entitateen finantza nahikotasunaren printzipioa babesteko eta ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz sarreretan izandako jaitsiera konpentsatzeko, eta betiere foru lege honetan onetsitako albuespenari eusten zaion bitartean, Nafarroako udalek ekarpen bat jasoko dute, jasandako jaitsieraren baliokidea, toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsetik».

Zioak: Toki Araubidearen Foru Batzordean, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko ordezkariak oniritzia eman zioten EJZtik albuespeteko proposatzen den aldaketari (foru lege proiektuan jasotako kasuetan), eta adierazi zuten neurri hori (eta konpentsazioaren ehunekoa) hurrengo urterako berrikusi behar dela. Horregatik, azken xedapenetatik lehenengoan, 2021erako konpentsazio-ehunekoa ezarri da, eta 3/2020 Foru Legeari 15. artikulua berri bat gehitu zaio; artikulua horretan, hain zuzen, udalen biztanleriaren arabera, albuespen berririk egon ezean udalei legokiekkeen zergaldiko tributu-kuoten % 95 edo % 100 ezartzen da.

7. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapenetatik lehena aldatzeko zuzenketa.

Honako hau dioen tokian: «Ekarpenaren zenbatekoa, 5.000 biztanleko edo gutxiagoko udalerr

bakoitzarentzat, hau izanen da: ekonomia-jardueren gaineko zergan, albuespenik egon ez balitz, zergaldian eta negozio-zifraren zenbateko garbia 1.000.000 euro baino txikiagoa duten zergadunengandik jasoko zituzkeen tributu kuoten ehuneko 100. 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien kasuan, ekarpena kuota horien ehuneko 95 izanen da».

Proposatzen den testua

Udal guztientzako ekarpenaren zenbatekoa, hau izanen da: ekonomia-jardueren gaineko zergan, albuespenik egon ez balitz, zergaldian eta negozio-zifraren zenbateko garbia 1.000.000 euro baino txikiagoa duten zergadunengandik jasoko zituzkeen tributu kuoten ehuneko 100.

Zioak: Irizpide bera aplikatu behar zaie herritar guztiei, beren udalerriko biztanle-kopurua edozein dela ere; horrela, konparaziozko bidegabekeriak saihestuko dira eta, batez ere, berdintasun-printzipioa lehenetsiko da.

8. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

Honako hau dioen tokian: «Lurraren kontribuzioari dagokionez, gaikuntza ematen zaie udalei aukerako hobari batzuk ezartzeko. Lehenengo eta behin, ehuneko 90erainoko hobaria, familia ugarien eta guraso bakarrekoen edo gurasobakartasun egoeran dauden etxebizitzaren gainean. Aldaketa horrekin betetzen da Familia Ugari buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen 12.3.a) artikulua eta Nafarroako Foru Komunitatean familia guraso bakarrekoko egiaztatze buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen 12. artikulua jasotzen diren aginduak. Horrez gain, ezartzen diren hobariak, ezartzen badira, etxebizitzaren balio eguneratuen gainean aplikatu daitezten, hobariaren aplikaziorako nahitaezkoa izanen da balorazio txostena azken bost urtetan eguneratu izana».

Proposatzen den testua

«Lurraren kontribuzioari dagokionez, gaikuntza ematen zaie udalei aukerako hobari batzuk ezartzeko. Lehenengo eta behin, ehuneko 90erainoko hobaria, familia ugarien eta guraso bakarrekoen edo gurasobakartasun egoeran dauden etxebizitzaren gainean. Aldaketa horrekin betetzen da Familia Ugari buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen 12.3.a) artikulua eta Nafarroako Foru Komunitatean familia guraso

bakarrekoak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen 12. artikuluan jasotzen diren aginduak".

Zioak: Irizpide bera aplikatu behar zaie herritar guztiei, edozein udalerritakoak direla ere eta uda-

lerri horrek balorazio-txostena eguneratu duen kontuan hartu gabe; horrela, konparaziozko bidegabekeriak saihestuko dira, toki-erakundeen jardueren arabera, eta, batez ere, berdintasun-printzipioa lehenetsiko da.

2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko azaroaren 26an, ezetsi egin du Navarra Suma talde parlamentarioak 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 132.5 artikuluan xedatuarekin bat, proiektua Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, bikote egonkorren erregistro bakarria sortzeari buruzkoa.*IDATZIZKO GALDERA BIHURTZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020 abenduaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak idazki bat aurkeztu du, zeinaren bidez eskatu baitu ahoz erantzun beharreko bikote egonkorren erregistro bakarria sortzeari buruzko galdera idatzizko galdera gisa izapidetu dadin.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Adieraztea aipaturiko ahozko galdera idatzizko galdera bihurtu izanaren berri izan duela. Galdera 2020ko urriaren 30eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00334).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020 abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, aire zabaleko instalazioetan egiten diren Nafarroako kirol lehiaketetako ikusleen presentziari buruzkoa.*OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Legebiltzarreko Osoko Bilkuran izapidetu dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, aire zabaleko instalazioetan egiten diren Nafarroako kirol lehiaketeta-

ko ikusleen presentziari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 26ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00397).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Zuastiko Zerbitzugunearen ondoko atean ordainleku bat jartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Zuastiko Zerbitzugunearen ondoko atean ordainleku bat jartzeari buruzkoa. Galdera 2020ko otsailaren 28ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique galdera idatzia egin du (10-20/PES-00037) —2020ko otsailaren 19ko 855 sarrera-zenbakia du Parlamentuan—, argibideak eskatzeko AP-15etiko sarbide batean ordainlekua jartzeari buruz eta zerbitzugunearen ondoan dagoen ateari buruz. Hauxe da Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Elma Saiz Delgado andrea udal ordezkariekin bilduta egon zen Itzako udaletxean iragan abenduaren 20an, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun kontseilaria den aldetik.

Gainerako galderari erantzunez, erantsita doa Nafarroako Gobernuaren 2020ko irailaren 9ko Erabakiaren espediente. Erabaki horren bidez baimena ematen da ordainleku berri bat jartzeko Nafarroako AP-15 autobideko Zuastiko zerbitzugunean, eta Nafarroako Gobernuak eta Audenasak sinatu beharreko hitzarmena onesten da; erabaki horretan azaltzen dira bera hartzeko kontuan hartu diren aurrekariak eta inguruabar tekniko eta juridikoak. Honako hauek dira dokumentuak:

– Nafarroako Gobernuaren 2020ko irailaren 9ko Erabakia

– Nafarroako Gobernuak Audenasan duen ordezkariaren txostena, kontu-hartzaile nagusiak ontzat emanda.

– Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren zuzendari nagusiaren txostena.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urriaren 9an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria, Elma Saiz Delgado

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

Galdera, NICDO enpresa Reyno Arenan egiten ari den “autozinema” jarduerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, NICDO enpresa Reyno Arenan egiten ari den “autozine-

ma” jarduerari buruzkoa. Galdera 2020ko ekainaren 5eko 65. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatzizko galdera egin du (PES-00108); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Administrazio Publikoetan euskarren erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretua dela-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 2019ko irailaren 27an emandako epaiek ukituko dituzten oposizio-lehiaketetarako eta lekualdatze lehiaketetarako deialdien zerrenda.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak emandako ebazpena erantsi da (106/2020 Ebazpena, urtarrilaren 13koa).

Beste organo batzuek emandako ebazpenei dagokienez, eskura duzu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ebazpenen zerrenda (250E/2020 Ebazpena, otsailaren 7koa), bai eta Barneko zuzendari nagusiarenak ere (12/2020 Ebazpena, urtarrilaren 22koa, eta 17/2020 Ebazpena, urtarrilaren 28koa).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urriaren 9an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sistemari).

Galdera, Nafarroako Gobernuak AP-15eko ibilgailuen zirkulazioa diruz laguntzearen kostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak AP-15eko ibilgailuen zirkulazioa diruz laguntzearen kostuari buruzkoa. Galdera 2020ko ekainaren 5eko 65. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko aurkeztu duen 10-20/PES-00109 galdera dela-eta, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak jakinarazten du administrazio akats baten ondorioz galdera ez dela behar bezala izapidetu eta horregatik atzeratu dela erantzuna.

Galderaren edukiari dagokionez, informazio hau ematen du:

Covid-19aren pandemiari eta ekarri duen krisi sanitario, sozial eta ekonomikoari aurre egiteko, Espainiako Gobernuak mugikortasuna murrizten duten neurriak hartu ditu, eta horiek eragin nabarmena izaten ari dira AP-15 autobideko trafiko kopuruetan. Izan ere, inoiz ez bezalako beherakada izan du autobideko trafikoak.

Hala ere, Nafarroako Gobernuak Audenasari deskontuen politika komertzialaren aplikazioa dela-eta ordaindu beharreko konpentsazioaren zenbatekoa ez da zuzenean kalkulatzeko, baizik eta bi aldeek sinatutako hitzarmeneko formula erabiliz kalkulatu diren diru-bilketa teorikoarekiko aldearen bidez (hitzarmena 1999ko maiatzaren 26an sinatu zen eta hurrenez hurreneko egokitzapenetan indarrean eutsi zaio), trafikoaren eta egiaz lortutako diru-bilketaren arabera, azken hori deskontuen eta diruz lagundutako prezioen aplikazioagatik gutxituta.

Autobideko trafikoaren inoizko beherakada handien ondorioz, berrerekatze-formulak ezusteko portaera izan du, eta, horregatik, ez da aplikatu martxoan, apirilean eta maiatzean, xehe-tasunez aztertu ahal izateko autobideko trafikoan sortutako egoera eta Nafarroako Gobernuaren eta

kontzesiodunaren artean lehendik sinatutako akordioen gaineko eraginak.

Gainera, Nafarroako Gobernuaren 2015eko abenduaren 23ko Erabakiak dioenez, Nafarroako Gobernuak diru-sarrera bermatuen kalkuluak ematen duen zenbatekora iristeko egiten dituen ekarpenak preziorako dirulaguntza gisa hartu behar dira, eta xedapen horren ondorioak ere aztertu egin behar dira, aipatu konpentsazioa zehazteko.

Gaiaren garrantzia eta haren azterketaren konplexutasuna kontuan izanik, Audenasako administrazio kontseiluak —zeinean Nafarroako Gobernuak % 50a baitu— iragan maiatzaren 19an erabaki zuen lantalde bat sortzea egoera aztertzeko eta Nafarroako Gobernuari helarazi ahal izanen litzaiokeen proposamen bat prestatzeko. Talde hori lanean hasi da, baina oraindik bukatu gabe dituzte azterketa, konklusioak eta proposa-

mena. Beraz, oraingoz ezin da esan zenbatekoa izanen den Nafarroako Gobernuak Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura egin beharreko konpentsazioaren gaineko eragina.

Bestalde, kontuan hartu behar da Nafarroako Gobernuak Audenasako akzioen % 50 dituela eta autobideko trafikoaren murrizketak ziur aski eragin negatiboa izanen duela enpresak espero dituen emaitzetan ere, eta, beraz, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren bitartez bilduko den dibiendua ere ustez murriztu egingen dela.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urriaren 9an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria, Elma Saiz Delgado